

aikor.

TOKIKOM

2026ko abuztua · #271



NEREA SANZ OLABARRIETA

Hazia, sorlekuan



Euskara eroso ikasi eta bizitzeko

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1 mailak

HABEk homologatutako euskaltegia
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Herrian bertan ikasteko aukera
Online

Matrikula zabalik irailaren 30era arte

Gorbea kalea 5, behea, Derio
94 454 39 67 | 607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

**EUSKO JAURLARITZA
HABE**

**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA**

**LARRABETZUKO
UDALA**

DIRULAGUNTZA BEREZIAK

(Ordaindu 120 euro behin, ikasi B1 arte) eta 16-18 URTE BITARTEKOENTZAT (C1)

aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Mikel Reina Barros

Argazkiak eta maketazioa:

Aner Mentxaka Alvarez

Administrazioa eta publizitatea:

Ruth Bilbao

Kolaboratzaileak:

Einer Larrabeiti
Andoni Solorzano Orue
Gaizka Peñafiel
Xabier Diaz
Jone Goitisolo Uriarte
Mireia Soba Martinez
Patricia Barron San Blas
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka
Gaizka Eguskiza

Albisteak:

txorierrri@aikor.eus | 688 864 135

Kudeaketa:

aikor@aikor.eus | 747 406 561

Administrazioa eta publizitatea:

admin@aikor.eus | 688 782 642

Inprimategia: Gertu

Banaketa: Pac publicidad

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Albiste laburrak
- 10 Zozketak
- 11 **Valentina loradenda**
DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA
- 12 Gaztea eta
Manu Serra Vicario
- 14 **Larrabetzuko jaiak**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Nerea Sanz Olabarrieta**
- 24 **Lezamako jaiak**
- 28 **Eguzki eklipsea, errepikaezina**
- 30 BATUZ
- 31 Sostengu sarea
Ta uda hau hain perfektua ez bada?
- 32 Sorlekua
Unos muertos muy vivos
- 33 Arrakala digitala
**Ezeztapenaren kultura:
epaiketarik gabeko kondenak**
- 34 Menditik patxadaz
San Formerio
- 36 Sukaldaritza
**Bakailaoa tipulin pil-pilarekin
eta piperradarekin, cous cous gainean**
- 37 Denbora-pasak
- 38 Atzera begira



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



IRITZIA

Amaitu da

Baziren behin, ume batzuk magiadun marrazki bizidunek, komikiek eta ikuskizunek oso gustoko ebiezenak. Bertan ikusten zeuriezzen munduak politagoak, biziagoak eta aukeraz beteagoak iruditzen jakiezan. Eta sentsazio horrek eurrera egin eban helduarora iristerakoan be. Izan ere, "emozioak saltzen du" leloan oinarritzen dan sistema baten barruan, ilusiozko ikuskizunak nonahi.

Aspaldi da kapitalismo emozionala gure bizitzetan sartu zala. Konkretuki, 1900. urtean, Estatu Batuetan (zelan ez) aldaketa kezkarri bat zabaltzen eta normalizatzen hasi zan: errespetua, neurritasuna, alkartasuna eta hausnarketa bezalako giza balioak ordezkatu egin ziran, kanporakoia eta arrakatsua izateagatik. Eta larriena da, hori modan jarri zala.

"Emozioak saltzen du leloan oinarritzen dan sistema baten barruan, ilusiozko ikuskizunak nonahi"

Orduztik, modako nortasun hori eukitea lortuteko, magia trikimailu erabilienetarikoz batzuk honek izen ziren: komertziala eta liluratzaila izetea, ligatzea (ez benetan konektatzea), taldekidetzat faltsu baina erakargarriak sortzea... Ez da harritzekoa, beraz, Etxe Zuriko presidentea nor dan; ez da kasualidadea bez kuadriletan edo fami-

lietan agintzen eta erabakien kontrola daukienak nortzuk diren.

Halandabe, eta logikoki, hasieran aipatutako umeen bizitzak ez dire hobeak bihurtu. Ta danok dakigu holan ez gabizela ondo. Gure osasun mentalaren mugara heldu garela.

Aurtengo oporratan, enoa kanpora edo urrunera. Atsedean hartu, musika en-tzun, goxo jan, gustoko geuzetxuek ein eta maite dotenakaz egon gure dot, bada etxean edo bada Bizkaiko edozein hondartza edo belarditan. Ta gogotsu nau. "Baie asteburu pasa bez? Edo hemendik hurbil?" galdetu dostie askok, "bueno... ez da ezebe pasetan, hurrungo urtean ingozu", animetan saiatzen jarraituz. Lasai, FOMO-a saltzaileen kulturaren beste asmakizun bat baino ez da izen eta. Amaitu da ikuskizuna.

EINER LARRABEITI
Psikologoa



Hasarre nago

Hasarre nago. Hasarre nago selektibidadean euskerazko azterketan 0,0 atara dauenagaz, telebistan gu engainetan saiatsu bere irakasleagaz, azterketako nota lotsagarri hori erreklamatzera euren seme-alabakaz joan ziran gurasoakaz, ikasle horreei babesa emon eutsien epaileakaz, EHUKo errektorearen kontra ibili diran politikariakaz, ikasle horreeri B2 titulua- ren baliokidea emongo deutson sistema- gaz eta A eredu diseinatu ebanagaz.

Hasarre nago. Hasarre nago eskolako Whatsapp taldean euskeraz egitea errespetu falta dala dinon gurasoagaz, Euskalaldian Ahobizi txapa aukeratu eta erdera hutsean ibili zanagaz, edo herriko hamai- kakoan parte hartu arren sare sozialetan erderaz bakarrik publiketan dauenagaz; baita KORRIKAKo lekukoa posturoagaitik erosi gura izan eben CCOO eta PSOE- gaz zein KORRIKAKo mezuaren egileen aurka egin eban politikariagaz be.

"Hasarre nago euskeraren erabilerak Txorierrin behera egiten jarraituko dauelako eta ez dodalako larritasun handiegirik ikusten"

Hasarre nago. Hasarre nago D ereduan ikisi arren euren seme-alabari erderaz egiten deusien guraso barriekaz, hogeita hamar personako bilera baten euskera gixi gorabehera ulertan dauen persona bat dagoalako bilera hori gaztelaniaz egingo dala erabagitzen dauenagaz eta Sondikako Ola auzoa "bizi guztian" "La Ola" izan dala esaten dauenagaz.

ANDONI SOLORZANO ORUE
Hizkuntza Aholkularia



Hasarre nago. Hasarre nago Sondikako udako zineman "Irati" (euskeraz grabatu zan pelikula) gaztelaniaz emon dalako, Telmo Iruretagoiena eta Aitziber Garmendia euskaldunek antzerkia, Sondikan, gaztelaniaz egin behar izan ebelako; Zuhaitz Gurrutxaga, Nerea Gorriti, Iñigo Aranburu eta Oihana Maritorena euskaldunen Scape Room be Sondikara gaztelaniaz ekarri zalako; Herri Txiki Infernu Handin gazterik agertu ez eta euskera zaharren kontua dala ulertzeraz emon zalako; sanjuanetako kuadrillen igoerako txarangak abesti bakar bat be euskeraz abestu ez ebalako.

Hasarre nago. Hasarre nago euskeraren erabilerak Txorierrin behera egiten jarraituko dauelako eta ez dodalako larritasun handiegirik ikusten. Haserre nago % 4ko kale-erabilera normalizat hartu eta onartu egin dalako. Haserre nago egoerari buelta emoteko borondate politikorik ikusten ez dodalako.

BERRI LABURRAK



Maria Ricondo eta Ibon Gamboa gailendu dira II. Euskal Backyard Ultraren

Loiuko II. Euskal Backyard Ultraren ezaugarri nagusia beroa izan da. Maratoi diziplinan, Jon Artaraz eta Andrea Moreno izan dira irabazleak. Oro har, lehen loiuztarra Joseba Txurruka izan da eta Txorierriko lehen emakumea Kat Mattier.

Proba barikuan hasi zen, 21:00etan, irteera lerroan 200 korrikalari inguru zeudelarik: beste guztiak baino itzuli bat gehiago egitea zen helburua. Eguraldiaren ziurgabetasunak lehiaketaren hasiera markatu zuen. “Udako beroari hezetasun handia eta giro itogarria gehitu zitzaizkion”, azaldu dute. Hala ere, 100 parte-hartzaile inguruk jaso zuten larunbateko egunsentia, oraindik lasterketan zegoela, tenperatura altuak aurkari nagusi bihurtu ziren bigarren jardunaldi bati aurre egiteko prest.

Bero handiak murriztu egin zuen hau-tagaien taldea, eta, lehiaketako lehen 24 orduak bete ondoren, Ibon Gamboa bizkaitarrak, Meltxor Iza gipuzkoarrak, Javier Ollobarren nafarrak, Maria Ricondo kantabriarrak, Guzman Calderon almeriarrak eta Oihan Arzua eta Unai Elorrieta bizkaitarrek bakarrik jarraitu zuten lasterketan.

Hain zuzen ere, Maria Ricondo izan zen probako une garrantzitsuenetako baten protagonista, iaz Irati Ortiz de Anda lezamarrak 22 itzulirekin ezarritako Euskal Backyard Ultraren emakumezkoen errekorra hautsi baitzuen. Kantabriako korrikalariak marka hori zabaldu zuen, 28 itzuliak gaindituz. Gamboa gizonetzkoen irabazleak 34 itzuli eman zituen 228 kilometro osatuz.

Derioko Gernikako Arbola berriz urbanizatuko dute

Derioko Udalak aurrera egiten jarraitzen du udalerrri “irisgarriago, seguruago eta jasangarriago” baten aldeko apustuan, Sollube kalearen eta Larrabarri ibilbidearen arteko Gernikako Arbola kaleko berrurbanizazioarekin. Horrela, oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna hobetuko dute, Uribe Parkearekiko lotura indartuko dute, baita eskolako bidegorriarekin ere.

Oinezko eta bizikletazko joan-etorriak lehenesten dituen planaren barruan kokatuta dago, “mugikortasun seguruagoa sustatzen du eta oinezkoen, txirrindularien eta abiadura txikiko ibilgailuen arteko bizikidetza errazten du”.

Horretarako, espaloiak handituko dituzte, bi norabideko bidegorri berri bat eraikiko dute eta galtzada berrantolatuko dute “zirkulazioa baretzeko eta bide segurtasuna hobetzeko”. Jarraierak aparkalekuen banaketa berria, zoladurak eta hiri azpiegiturak berritzea eta seinaleak hobetzea ere aurreikusten du.

“Uribe Parkerako irisgarritasuna hobetzea izango da alderdi garrantzitsuenetako bat. Sarbide berri bat egingo da eskaileren eta arrapala egokitu baten bidez, dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko eta parkearen eta hirigunearen arteko lotura errazteko. Halaber, bizikleta ibilbide berriak Aralar kalearekin, eskola gunearekin, Larrabarriarekin eta Mungialde etorbideko bidegorriarekin bat egingo du, udal bizikletasarea indartuz”, azaldu dute.

Lanek 7.500 metro koadroko azalera hartuko dute gutxi gorabehera, 1.295.074,99 euroko oinarritzko aurrekontuarekin eta lanek 40 asteko iraupena izatea aurreikusten dute.

“Proiektu honekin, udalak urratsak ematen jarraitzen du Derio irisgarriagoa, iraunkorragoa eta konektatua eraikitzeko, herritar guztientzako espazio publiko atseginagoa eta seguruagoa sortuz”.



Zure taxi,
Teoriazko

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobillbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

“Erantzun bikaina” 2027ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuari

Proposamenak jasotzeko faseak “parte hartze handia” izan duela adierazi dute Derioko Udaletik. Guztira, 65 proposamen jaso dituzte herritarren, elkartearen eta gizarte eragilearen aldetik, iaz baino lau gehiago: “Derioren etorkizuna elkarrekin eraikitzeko duten konpromisoa berriro ere agerian utziz”.

Kirol ekipamendu berriak eta dau-den instalazioen hobekuntza, mugikortasuna eta aparkalekuak, parke eta berdeguneak, eta irisgarritasuna zein udal zerbitzuen egokitzapena izan dira gehien errepikatu diren eskaeretakoz batzuk.

Prozesuak aurrera jarraitzen du eta, orain, jasotako proposamen guztien “bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta juridikoa” aztertzen ari dira. Fase hori ekainaren 27an hasi zen eta irailaren 6ra arte luzatuko da. Ondoren, irailaren 14an argitaratuko dute herri bozketara pasatuko diren proiektuen zerrenda. Proiektu horiek irailaren 16tik 30era bitartean bozkatu ahal izango dira udalaren webgunearen bidez. Azkenik, urriaren 15ean emango dira ezagutzera bozketaren emaitzak eta 120.000 euroko aurrekontuarekin gauzatuko den proiektu irabazlea.

BERRI LABURRAK



Herri bazkarian 4.500 euro bildu dituzte autismoa duten pertsonen APNABI elkartearentzat

Udaletxean egindako ekitaldian gauzatu dute dohaintzaren entrega, “herri-tarren parte hartzeari eta elkartasunari esker lortutako emaitza ospatzeko”. APNABIren izenean, Mikel Pulgarin presidenteak jaso du ekarpena. Berarekin izan dira Naia Landa Sondikako alkatea eta Alaitz Zabala, Deñe Sarria eta Aitor Mujika zinegotziak; bai eta bazkaria prestatu zuen Bizkaiko Sukaldarien Bilkura (BISUBI) Fundazioko Xabi Zubiaga sukaldaria eta Silvia Palenzuela komunikazio arduraduna ere.

Pulgarinek, “bihotzez” eskertu du dohaintza: “Sondikako herritarrek erakutsitako elkartasuna ederra izan da. Ekarpene honek gure lana babesten laguntzeaz gain, autismoaren errealitatea gizarteratzeko eta ikus garri egiten ere laguntzen du”. BISUBI Fundaziotik adierazi dutenez, “urtez

urte ekimen honetan parte hartzea ohorea da guretzat. Herritarren elkartasunarekin bat egitea, maite duguna egitea eta APNABI bezalako elkarte batekin lan egin ahal izatea motibazio handia dira”.

Naia Landa alkateak esan du Sondikak beste behin erakutsi duela “herri solidarioa” dela. “Herritarren erantzunari esker, APNABI bezalako funtsezko erakunde bati lagundu ahal erakunde bati lagundu ahal izan diogu, ta horrek balio handia du. Herri Bazkari Solidarioa gure jaien barruan izan da, eta horrek balio handia du. Herri Bazkari Solidarioa gure jaien barruan sendotzen ari den hitzordua da, eta poz handia ematen digu elkartasunak hainbeste sendotzen ari den hitzordua da, eta poz handia ematen digu elkartasunak hainbesteko eko indarra izaten jarraitzea”.

Derio, 2035erako hazkunde demografiko handienetakoa izango duen herrietako bat

Eustatek egindako dokumentuan jasotako datuen arabera, hurrengo hamarkadan Bizkai, Araba eta Gipuzkoan hazkunde demografiko handiena izango duen herrietako bat izango da Derio, Urduliz edota Berangorekin batera. Proiektzio horien arabera, hiru udalerri horiek izango dira biztanleriaren hazkunde erlatibo handienak izango dituztenak 2025 eta 2035 artean. Aurreikuspen horiek azken urteetan ikusi den joera islatzen dute. “Bilbotik gertu egoteak, errepideko konexio onak eta garraio publikoko zerbitzuak, etxebizitzaren sustapen berriak eta lurzorua es-

kuragarritasunak udalerri horietan jarri dute fokua, hiriburutik hurbil bizitzeko toki gogokoenetakoa dira”.

Euskal Estatistika Erakundeak egindako estimazioen arabera, Urdulizek izango du hazkunde demografikorik handiena. “Oso gertu” egongo dira Berango eta Derio. 2025etik 2035era bitartean udalerri horietan biztanleria %10etik gora haztea aurreikusten baita. Jokabide horrek indartu egingo du Ezkerraldearen eta Uribe Kosta eta Txorierri inguruaren pisu demografikoa, bertan biltzen baita lurraldearen hirigintza eta bizitegi garapenaren zati handi bat.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



BERRI LABURRAK

Sangroniz Industrialdeko Enpresa Elkartearekin hitzarmena: “Espazioaren hobekuntza eta lehiakortasuna sustatzeko”

Sondikako Udalak eta Sangroniz Industrialdeko Enpresa Elkartek lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute udalerriko enpresa gune garrantzitsu horren mantentzea, kontserbazioa eta hobekuntza bultzatzeko. Aldi berean, horri esker, industrialdean kokatutako enpresentzat balio erantsia sortuko duten proiektuak ere sustatuko dira.

Enpresa espazioan azpiegiturak, mugikortasuna eta irudia hobetzeko plan estrategikoaren lehen jarduketak gauzatzeko aukera emango du akordioak. Sondikako Udalak 100.000 euroko hasierako inbertsioa egin du poligonoa hobetzeko lanen lehen faseari ekiteko.

Lehentasuna emango zaio industrialderako estrategikotzat jotzen diren zenbait jarduera gauzatzeari. Sondikako Udalak 100.000 euroko inbertsioa egingo du asfaltatzeko eta seinaleak egokitzeko, kamioientzako aparkalekuak hobetzeko

eta industrialdeko zirkulazioaren noranzkoak optimizatzeko. 2026-2027 bitartean, proiektuan aurreikusitako 5 faseetako lehena gauzatuko da.

Enpresarien Elkartek, bere aldetik, poligonoko kartelak berrituko ditu eta Sangronizen kokatutako enpresak identifikatzeko seinale berriak jarriko ditu. Horrela, enpresaesparruaren barruan irudia, irisgarritasuna eta orientazioa hobetzen lagunduko du, 50.000 euro inguruko inbertsioari esker.

Estibaliz Ordorica Sangroniz Industrialdeko Enpresa Elkarteko presidentearen hitzetan, erakundeak 25 enpresa ditu gaur egun elkartuta, baina industria arloko jarduera ekonomikoko lurzorua-ren %50 baino gehiago ordezkatzen du, enpresa handiak eta txikiak zein jabeak inplikatzeko lortu dutelako “Sangronizentzat eta Sondikarentzat hain estrategikoa den proiektu honetan”.

Larrabetzuko Gazte Eguna, zapatuan

Badator Larrabetzuko Gazte Eguna. Zapatuan ospatuko dute, eta beste urte batez Hori Bai Gaztetxeak bete-beteko egitaraua prestatu du egun osoko jai giroa ziurtatzeko.

Abuztuak 1, zapatua

13:00 Kittu

15:00 Bazkaria

17:00 Olinpiadak

19:00 Elektrozarata

Ostean,
Manifestazioa eta ekitaldia

22:30 Lukiek, Anestesia, Maruxak, Goxua'n Salsa, Gorriortxu eta Laztana Plazan

00:00 Makeda, B2B, Adrien, Body, Puñales eta Gisa Hori Bain



HEGAN

EGITEKO AUKERAK

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa

Zure superboterea garatu

Eman izena
POLITEKNIKATXORIERRI.EUS



Panpa-lezka kentzeko kanpaina martxan jarri du Larrabetzuko Udalak

Abuztuaren 15era arte behe-behetik moztuko dituzte herriko lurretan dauden ale guztiak. Hain zuzen ere, azaldu dutenez, “data kritikoak” dira panpa-lezkaren hedapena geldiarazteko.

Helburu dute panpa-lezkei eragozte haziak daramatzaten luma motosak ekoiztea. “Gure soloak sakabanatuko ziren milioika hazietatik aske geratuko dira, eta horrela ez dira ugalduko”. Legeak Espezie Exotiko Inbaditzaile hori kontrolatu eta kentzera behartzen ditu lursailen jabeak, eta gainera, ‘Larrabetzun panpa-lezkarik ez’ ekimenarekin egindako lanaren fruituak finkatzea ekarriko du.

BERRI LABURRAK

Gorondagane HLHIko eta Goronda Beko kiroldegiko estalkietan 388 modulu fotovoltaiko jarriko dituzte

Sondikako Udalak dio “beste urrats bat” eman duela kontsumo jasangarria sustatzeko, 0 kilometroko energiaren sorrera bultzatzeko eta energia eredu jasangarriago eta parte-hartzaileago baterantz aurrera egiteko. Sondikako Udalaren osoko bilkuran onartu egin dute, EAJren eta PSE-EEren aldeko bozkekin, Gorondagane HLHIko eta Goronda Beko kiroldegiko estalkiak 388 modulu fotovoltaiko jartzeko lagatzeko proposamena. Modulu horiek duela sei hilabete eratutako TEK Sondika tokiko energia komunitatea martxan jartzeko erabiliko dira. Horrez gain, udalak energia-komunitatearekin bat egiteko hitzarmena ere onartu du.

Onartutako erabakiek “bultzada handia” emango diote udalarentzat estrategikoa den proiektuari. Aurreikuspenen arabera, obrak urte amaierarako amaituko dituzte, eta moduluak martxan jartzen direnean, energia komunitatera atxikita dauden pertsona eta establezimenduen

urteko elektrizitate kontsumoaren %25 inguru asetuko dute. Gaur egun, 270 kide inguru ditu TEK Sondikak.

Naia Landa Sondikako alkateak esan du TEK Sondika tokiko energia komunitatea etorkizunari begirako “apustua” dela: “Proiektu honi esker, energia eredu jasangarriago baterantz aurrera egiten jarraituko dugu, eta, aldi berean, sondikoztarrei argindarraren faktura murrizten lagunduko diegu, Sondikan bertan sortutako energia berriztagarriaren bidez”.

EGUZKI-INSTALAZIO BI

Goronda Beko kiroldegian egingo den instalazioak 170 modulu fotovoltaiko izango ditu, gutxi gorabehera 787 metro koadroko azaleran banatuta, eta 90 kW-ko potentzia nominala izango du. Bestalde, Gorondagane HLHIko estalkian 218 modulu fotovoltaiko jarriko dira, 1.010 metro koadro inguruko azaleran, eta 100 kW-ko potentzia nominala izango dute.

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure udako argazkia eta jasotako guztien artean
JumpYarden 10 lagunentzako urtebetetze ospakizuna zozkatuko dugu

Bidali aikor@aikor.eus helbidera,
irailaren 1a baino lehen.



BERRI LABURRAK

Komun publiko autogarbigarri eta irisgarri bat jarriko dute Herriko Plazan

Derioko laugarren komun publikoa izango da, Aldekonen eta Uribe zein Errekalde parkeetan dagoeneko instalatutako ondoren. 65.098 euroko aurrekontuarekin, lanak "hornidura, instalazioa, martxan jartzea eta hiru urteko mantentzea" barne hartuko ditu. PSE-EE taldeak aurkeztutako zuzenketa bati esker gauzatuko dituzte lanak.

Derioko Udalak komun publiko autogarbigarri eta irisgarri berri bat jarriko du Herriko Plazan. Herriko erabilera handieneko guneetako batean herritarrei eta bisitariei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzen jarraitzeko helburua daukate. Azpiegitura berriak, BiziParkaren eta Euskotreneko sarreraren artean kokatuko da, "irisgarritasun unibertsala bermatuko du, eta espazio publiko moderno, higieniko eta segurua eskainiko du pertsona guztientzat".

Horrela, udalak herriko laugarren komun publikoa jarriko du martxan. Lehenengo Aldekonen jarri zen, eta orduetik, azken hiru agintaldietan, agintaldi bakoitzean komun publiko berri bat jartzea bultzatu da: lehenik Uribe parkean, ondoren Errekalde parkean eta orain Herriko Plazan. Horrela, Udalak herritarren eguneroko erabilerako guneetan zerbitzu publikoak hobetzeko ildoari jarraipena ematen dio.

Komun berriak garbiketa eta desinfekzio sistema automatikoa izango du erabilera bakoitzaren ondoren. Sistema horrek komun-ontzia, eserlekua eta zorua garbitu eta desinfektatuko ditu, uneoro higie-ne-baldintza egokiak bermatzeko. Horrez gain, sarbide automatikoa, egoera adierazteko argizko seinaleak (erabilgarri, okupatuta edo garbiketan), segurtasun-sistemak eta erabilera-denbora mugatzeko aukera izango ditu, erabiltzaileen txandaketa errazteko.

Mugikortasun urriko pertsonak modu autonomoan eta seguruan erabili ahal izateko beharrezko elementu guztiak izango ditu. Seinale eta informazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, hurrenkera horretan, eta Braille sistema ere izango dute.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 65.098 eurokoa da. Hornidura eta instalazioa egiteko aurreikusitako epea 20 astea izango da.

"Derion uste dugu proiektu onak elkarrizketaren eta adostasunaren bidez eraikitzen direla. Horregatik, udal talde guztiak elkarlanean aritzen jarraituko dugu, derioztarren bizi kalitatea hobetuko duten ekimenak aurrera eramateko; izan ere, desberdintasunen gainetik herritarren interes orokorra dago", adierazi du Esther Apraiz alkateak.

Izar Argia abesbatza, Prevezako jaialdian

Izar Argia abesbatzak mugak gainditu ditu eta Grezian egon da uztailan. Atenasen egun batzuk igaro ostean, Preveza herriko 44. musika koraleko jaialdian parte hartuko du. Hain zuzen ere, lehiaketaren atalean euskarazko bost abesti interpretatu ditu gazte abesbatzak, *Aitormena* edota *Haizea*, besteak beste.

Bizkaiko Herriarteko Txapelketa irabazi du Larrabetzuko Olarretak

Larrabetzuko Olarreta pilota elkarrekin Bizkaiko Herriarteko txapela jantzi du gomazko pala modalitatean. Uztailaren 3an, jokatu zuten finala Atxondoren aurka, Barakaldoko frontoian. Uxue Urgoiti Bercedo, Irati Saez Dañobeitia, Facundo Maldonado eta Joanes Camara Buldain izan dira garaipeneko ordezkariak.



IN | SUKALDEAK
insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio



**NAHI
DUZUN
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.

ZOZKETAK

Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: aikor.eus/zozketak



Neguaren oparia liburua

Elkar argitaletxearen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **Abuztuak 31**



Rara liburua

Elkar argitaletxearen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **Abuztuak 31**



Urte urdin ihesak liburua

Elkar argitaletxearen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **Abuztuak 31**



Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **Abuztuak 31**



JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **Abuztuak 31**

AURREKO HILABETEKO IRABAZLEAK:

Eguneko menua Baserri Antzokian:
Fernando Villa Tielve

JumpYarderako sarrerak:
Oihana Astobieta Gana

Hontza museorako sarrerak:
Estibaliz Ercoreca Crespo

Lakioa liburua:
Enaitz Alonso Bilbao

Amamaren grafitiak liburua:
Ainhoa Bilbao Goiri

Liburu on bat liburua:
Ane Leniz Ereño



Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.



VALENTINA LORADENDA

Pertsonala eta hurbilekoa

Duela urtebete zabaldu zuten Sondikako Mikel Zarate kaleko 6. zenbakiko denda, baina 30 urte luzeko esperientzia daukate. Astelehenetik barikura 08:00etatik 15:00etara dago zabalik eta zapatuetan 08:00etatik 13:00etara. Harremanetan jartzeko 944 53 14 57 telefonoa daukate eskuragarri.

Valentina loradendak nortasun berezia dauka, “pertsonala da”, gainerakoengandik bereizgarria, eta ez bakarrik 30 urteko esperientzia dutelako: “Ia bizitza osoa daramagu lan honetan”. Hainbeste urteren ostean, “zigilu propioa” lortu dute, Valentina loradendaren lore-sortak “bereziak eta bakarrak” dira: “Ez dira gainontzekoenak bezalakoak, basatiagoak eta bakarragoak dira, lorategi estilokoak dira, naturalagoak”.

Hasi zirenetik “aldaketa handia” nabaritu dute. “Lehen oso oinarritzkoa zen, orain espezialitate handia dago eta ezberdintzen saiatzen gara”. Zertan? “Hurbileko tratua eskaintzen dugu eta batez ere lore eskaintzarik onena, gertukoena eta denboraldikoa”. Horregatik ez dute katalogorik, “egunero heltzen zaigun loreekin egiten dugu lan, ezin da freskoagoa izan”. Hala ere, zerbait berezia nahi izatekotan, eskatzeko aukera dago, eta egun bakarrean

lortu dezakete. Hain zuzen ere, loreak modan inoiz ez pasatzen ez badira ere, beti daude tendentziak. Orain, adibidez, gero eta ezkontza gehiago daude eta gazteek “irizpide oso argiak” dituztela diote, zer eta zelan nahi dute. Batez ere lore naturalekin lan egiten dute, landareak badituzte ere. Eguneroko oparietarako egiten dute lan astegunetan gehien bat, eta asteburuetan gehiago lantzen dituzte askotariko ekitaldiak, ezkontzak, esate baterako.

**TXORIERRIKO GIDA
KOMERTZIALA**



GAZTEA ETA

Beste edozeinek bezala

MANU SERRA VICARIO

T MIKEL REINA BARROS **ANER MENTXAKA ALVAREZ**

09:20. Sartu. Leihoak zabaldu. Postontzira joan. Gutunak atera. Karteldegia begiratu. Iraungitako kartelak kendu. Ordenagailua piztu. Lan egin. Egunerokotasuna azken batean. Edozeinena. Kasu honetan, Larrabetzuko liburutegiarena. Ekainean, Manu Serra Vicarioarena.

Manu edo Manel, berak lehen-dabizikoa nahiago du, beraz, horrela deituko diogu. Down syndromea duen larrabetzuarra da. Aski ezaguna herrian: futbolzale amorratua, Uritarraren jarraitzaile sutsua. Beste edozein larrabetzuar bezala. Manu, gainera, “oso larrabetzuarra” dela dio: “Niretzako egun bakoitza da Kuadrilla Eguna, batzuekin eta besteekin elkartzen naiz”. Hain zuzen ere, beste edozein bezala ikasten dabil Manu, eta praktikak ere osatu ditu, herriko liburutegian.

Administrazioa ikasi du, eta “oso pozik” egon da praktikak herrian osatzen. “Denetarik” egin duela dio: ku-deaketa kontuez gain, Excel erabili edota liburutegiko gauzak ordenatu. Euskal Herriko Down Syndrome Elkartearen eskutik, Lanbiden ikasi du, lehen bi urteetan Deustuko Unibertsitatean, eta azken urtean Santurtziko Calasanz ikastetxean. “Ahalegin ikaragarria” egin du dio Bego Vicario Calvo bere amak, batez ere bidaiei dagokionez. Begok berak eraman du egunero. “Asko eta asko dira hiruga-

rren urtean ikasketak uzten dituztenak, eta ez da zilegi”.

“Nota bikainak” atera dituela dio amak harrotasunez. Horregatik, praktikak “etxetik hurbilago” egin nahi izan zituzten familian. Larrabetzuko Udaletxera jo zuten eta liburutegiko aukera suertatu zen. “Manelek (amak horrela deitzen dio) beste batzuek baino ibilbide luzeagoa izan zezakeela uste genuen, hau da, ez bakarrik mugatzea guztiek egiten dituzten ikasketa edo lanetara”.



aikor.eus/nahieran
atalean ere ikusgai



Larrabetzun praktikak egin nahi izateak ere bazeukan beste “pisuzko arrazoi bat”: ostera ere euskaraz hitz egitea. “Txikitan Larrabetzun betidanik euskaraz hitz egin izan du, baina ikasketekin hasterakoan, erdera ikasi behar izan zuen”. Izan ere, etxean ere gaztelania-ra jo zuten egunerokotasunean ikasi ahal izateko, bazekiten harremantzeko beharrezkoa izango zuela. “Bidegurutze batean” sentitu da familia. Batetik, gaztelaniaz hitz egiteko beharra ikasketetan aurrera egin ahal izateko. Baina, bestetik, euskara galdu nahi ez izatea. “Ikasketak bakarrik dira gaztelaniaz eta bidean euskara maila handia galdu du. Euskara berreskuratzea zen bertan praktikak osatzeko helburu nagusietako bat,

hemen denok hitz egiten dugulako euskaraz”, azaldu du Begok.

Maite Zenarruzabeitia liburutegiko arduraduna ere “oso pozik” dago Manurekin. Konturatu orduko, eta batez ere egitekoari martxa hartu orduko, amaitu zaio praktikaldia. “Guretzako ere beritasuna izan da, fundazioko laguntzaileak izan ditugu alboan eta asko eskertu dugu, batez ere Patxi Gaztelumendiren laguntza. Azkenean, pixkanaka joan behar izan gara ikusten eta ikasten, ez bakarrik zertan lagundu zezakeen, baita ere zertan sentitzen zen bera eroso eta konfiantzarekin”. Esperientzia “oso aberasgarria” izan dela nabarmendu du. Manuk ikasten jarraitu nahi duela “argi” dauka. Baina amak susmoa dauka jarraitu nahi duela “gustura”

lan egiteko tokirik aurkitzen ez duelako. Eskaintza “oso txikia” izaten duela dio. Alde horretatik, Manu “oso aktiboa” da. “Entrenatzailea izatea gustatuko litzaidake”. Aukera gutxi izateaz gain, “ardura, presentzia eta esfortzua” eskatzen duten postuekin egongo zen Manu “pozik”. Horregatik, adibidez, ez du lanik egin nahi momentuz, hurrengo ikasturtean merkataritza ikasten hasiko da. “Matematikak gustatzen zaizkit eta orain arte ikasitakoa baliagarria izango zait”.

“Idealena jardunaldi erdiko lan bat izango litzateke, etxetik hurbil, non ardura eta konfiantza duen bere lana egin ahal izateko”. Bitartean, Manuk egunero ikasten jarraituko, gure bizitzan denok egin beharko genukeen bezala. ●

Ford Goiri'78
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

BOSCH Service

ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

E. Bilbao Bidaiak

autobus zerbitzuak

eneko@bilbaobidaiak.eus
663 231 001

www.bilbaobidaiak.eus



T MIKEL REINA BARROS IDOIA ANDRES

LARRABETZUKO JAIK

Tradizioa eta berritasunak nahastuz

Larrabetzuko jaiak prest daude, abuztuaren 14tik 16ra ospatuko dituzte andramariak eta 29tik 31ra emeteriak. Intxurreta Jai Batzordeak beste urte batez egitarau zabala eta anitza prestatu du, betiko ekintzez gain berritasun ugari sartu ditu, adibidez, kuadrillen arteko txapelketa berreskuratuz.

Larrabetzun, Gazte Eguna egunik zabalena izaten bada ere, batez ere inguruko herrietatik datorren jende guztiagatik, larrabetzuarentzat ez dago andramari eta emeteri bezalako jairik. Herriatik herriarentzako jaiak dira, herriarrentzako elkargunea. Abuztuaren 14tik 16ra ospatuko dituzte andramariak eta 29tik 31ra emeteriak. Hori bai, txupinazoaren aurretik, Intxurreta Jai Batzordeak askotariko egitarau antolatu du.

Antolatzaileek nabarmendu dute aurreten kirolari “garrantzi berezia” eman nahi izan diotela. Adibidez, lehen aldiz waterpolo txapelketa osatuko dute herriko igerilekuan. Jaiaren bezperan, normalean, futbol txapelketa lehiatzen zuten, baina aurreten Errebale futbol zelaiko obregatik abuztuaren ez da erabilgarri egongo eta alternatiba moduan satu dute egitarauan

“Kirolari “garrantzi berezia” eman nahi izan diote waterpolo eta pala txapelketarekin”

waterpolo txapelketa. Abuztuaren 9a baino lehen eman behar da izena intxurreta-jaiatzordea@gmail.com posta elektronikoa edo igerilekuan. Beste alde batetik, Olarreta Pilota Elkartearekin elkarlanean pala txapelketa arina antolatu dute lehen aldiz. Uztaileko pala txapelketarekin alderatuta, bi eguneko lehiaketa izango da. Abuztuaren 5a da izena emateko azken

eguna, waterpolorako bide beretik. Hori gutxi ez, eta ia berriro antolatu ostean, aurtengo jaietan ere trimotloia lehiatuko dute. Hemen ere, parte hartzeko epemuga abuztuaren 9a da.

Baina aurtengo berritasun nagusia kuadrillen arteko txapelketa berreskuratzea da. “Bi urtez egin genuen, gero beste bi urtez ez genuen egin, eta orain herriarrek osterara ere egitea eskatu digute”, azaldu dute. Kuadrilla bakoitzak 5 proba osatu beharko ditu, bakarra utzi ahaliko dute egin barik. Derrigorrezkoa bakarra izango da, kantuz kantu talentu lehiaketan parte hartzea. “Giro polita” sortzen duen ekintza da eta larrabetzuaren proposamen bezala onartu dute Jai Batzordean. “Beti ditugu proposamenak, esker onez gainera, baina azkenean aurrekontua ekonomikoak eta azpiegi-

EGITARAUA

ANDRAMARIEK

12, eguaztena

17:00 **Pala txapelketa herrikoia**

20:00 **Waterpolo txapelketa**

13, eguaztena

17:00 **Pala txapelketa herrikoia**

20:00 **Herri afaria**

22:30 **Kantuz kantu** Herriko musika-
rien eskutik eta kuadrillen arteko ta-
lentu lehiaketa (kuadrila txapelketan
parte hartzeko ezinbesteko proba)

14, barikua

17:00 **Trimotloia** Kuadrillen arteko
txapelketan puntuagarria

19:00 **Txupinazoa** Euskararen aldeko
taldeen eskutik, herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa
eta Akarbaltzegaz

Ostean, **Ustekabe** txaranga

22:00 **Diskodantza**

00:00 **Zutik** erromeria

15, zapatua

11:00 **Kalejira** herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin,
Jesusa eta Akarbaltzegaz

12:00 **"Eta orain zer?"** dantza
ikuskizuna Txinglik taldearekin.

Ostean, **Ustekabe** txaranga

18:30 **Karrozak** Kuadrillen arteko
txapelketan puntuagarria

20:00 **Joselu Anayak**

Ostean, **Dantza lehiaketa** Kuadrillen
arteko txapelketan puntuagarria

00:00 **Bide Batez** erromeria

16, domeka

11:00 **Kalejira** herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa
eta Akarbaltzegaz

11:30 **Puzgarriak igerilekuan**

13:00 **Kantarrana Band**

14:00 **Umeen bazkaria**

14:30 **Sukalki txapelketa** Kuadrillen
arteko txapelketan puntuagarria

15:30 **Umeen jolasak** plazan

18:00 **Poteo Rallya** Kuadrillen arteko
txapelketan puntuagarria

20:00 **Skapaie** elektrotxaranga

Ostean, **Barbakoa** plazan

23:45 **Kuadrillen arteko txapelketaren
sari banaketa**

00:00 **Bidean** erromeria

EMETERIEK

29, zapatua

12:30 **Txupinazoa** herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa
eta Akarbaltzegaz

13:00 **Apar jaia**

14:30 **Marmitako txapelketa**

17:00 **Mus eta Briska txapelketak**

18:00 **Kalejira** herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa
eta Akarbaltzegaz

20:00 **Eraitsi SL** kale antzerkia
Goitibera konpainiaren eskutik

23:00 **Zirkinik Bez** erromeria

30, domeka

12:00 **Euskal dantzen ikuskizuna**
Bizkargi dantza elkartearen eskutik

17:00 **Herri kirolak**

Ostean, **Kalejira** herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa
eta Akarbaltzegaz

21:00 **Larrabetzuko Etxafleruek**

22:00 **Mixerabliak**

31, astelehena

13:00 **Bertsolariak:**
Anjel Mari Peñagarikano eta Jone Uria

17:00 **Umeen jolasak**

Ostera, **Kalejira** herriko txistulari,
Akarmari, Paskuala, Matxin,
Jesusa eta Akarbaltzegaz

19:00 **Bingo musikatua**





turek ere baldintzatzen gaute hein handi batean”.

Berritasunez gain, badaude hutsik egiten ez duten ekintzak eta egunak. Adibidez, Kintoen Eguna edota Mozorroen Eguna. Esate baterako, kua-drilla bakoitzaren karroza puntuagarrria izango da. Horrez gain, orain arte abuztuaren 15ean Bizkargi Dantza Taldeak erakustaldia egiten zuen urtero. Aurten, berriz, Emeterietara pasatu dute erakustaldia eta herrikoen orde, Iparraldetik Txinglik Dantza Taldea ekarriko dute Larrabetzura arte. Hain zuzen ere, Emeterietan ere bestelako apustu bat egin dute Jai Batzordean eta aspaldiko partez kale antzerkia egongo da: Eraitsi SL.

Jaietako zapiak kolore laranjakoak izango dira AEKri keinu eginez

KEINUAK

Txupinazoa jaurtitzeko ardura aurten herriko euskararen aldeko talde eta eragileek jaurtiko dute: Darabilgu Euskara Elkartek, AEK edota Euskaalgintzako kideek. Jaietako zapiak ere bereizgarriak eta bereziak izango dira, kolore laranjakoak izango dira AEKri keinu eginez.

“Korrika beti da arrakastatsua, baina aurtengoa bereziki jarraitua izan da. Euskarari orain bereziki, baina egunerokotasunean beti indarra eman behar zaionez, aho batez erabaki genuen Intxurreta Jai Batzordean txupinazoa euskara eragileek jaurtitzea”.

Intxurreta Jai Batzordetik “inoiz baino arinago” hasi ziren aurtengo jaiak antolatzen: azaroan elkartu ziren lehen aldiz. “Batez ere kontratazioak egiterakoan konturatu gara gero eta lehenago itxi behar ditugula, eskaera handia dago musika taldeengatik eta nahi duguna ekartzeko arinago hasi behar gara lanean”. Pentsa, orain arte urtarrila eta otsaila bitartean hasten ziren Jai Batzordea osatzen duten 14 kideak bilerak egiten. ●



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



**Txispa
mendi**
Herriko Denda

Ogia
Elkagai bereziak
0 km-ko jatekoak
Elkagai ekologikoak



Gaztelumendi, 1
LARRABETZU
622 208 441



**ETORKI
TABERNA**

Anoak - Plater konbinatuak
Ogitartekoak - Hanburgesak

Andra Mari, 1 - Larrabetzu
94 455 81 94

Larrabetzuko Jaiak 2026

Abuztuak 14, 15, 16, 29, 30 eta 31



Jaiak eta euskara,
herri baten taupada!

Intxurreta Jai Batzordea



Bertakoa lehenetsiz euskara indartu



Kaishop kanpainak tokiko merkataritza eta euskararen erabilera bultzatu ditu

Maiatzean egin zen Kaishop! kanpaina, Txorierriko biztanleek euren erosketak herrian eta euskaraz egitea helburu duen ekimena, hain zuzen. Txorierrin ez ezik Getxon, Leioan eta Gernikan ere zabaldutako kanpaina hau arrakastatsua izan da beste urte batez, herritar askok hartu baitute parte antolatutako ekintzetan.

Hilabete osoan zehar hainbat egitasmo eraman ditugu aurrera mezu hori herritarrengana hurbiltzeko: denda eta establezimenduetan kartelak eta eskuorriak banatu dira, bideo bat osatu da bertako dendari eta ostalariekin, eta sare sozialen

bidez ere zabalkundea egin da.

Aurten ere arrakasta handia izan duen ekintzetako bat **“inkesta ibiltaria”** izan da. Txorierriarrengana hurbildu nahi izan dugu horrela, giroa sortu kaleetan eta Txorierriko merkataritza eta ostalaritzari buruzko galdera-erantzun jokoa egin: adibidez, “Txorierriko zenbat ile-apaindegi dira Euskararen lagunak?” edo “Txorierriko Euskararen Lagun diren establezimenduetara bazoaz, zenbatek erantzun ahal dizute euskaraz?”. Horrelako galderak egin dizkiegu herritarrei. Maiatzaren 15, 22 eta 29an ibili ziren inkestatzaileak Txorierrin zehar.

Guztira 335 herritarrek hartu dute parte inkestan. Erantzun duten guztiek paitan bana jaso dute opari gisa eta horrez gain, hainbat sari ere zozketatu dira parte-hartzaileen artean. Sari nagusia Eneko Atxaren jatetxean bi pertsonentzako bazkaria izan da. Horrez gain, Sondikako batzokiak, Lezamako Oxangoiti Kultur Elkartek eta Sondikako Esther fruta dendak emandako opariak banatu dira, eta baita Txorierriko Mankomunitateak emandako 50 euroko lau bonu ere, bertako dendetan gastatzeko.

IRABAZLEEK DAGOENENKO JASO DITUZTE EUREN SARIAK

Kanpaina amaituta, balantzea oso positiboa da. Herritarrek gogotsu parte hartu dute antolatutako jardueretan, eta beste behin ere agerian geratu da tokiko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko, eta aldi berean euskararen erabilera sustatzeko, elkarlana ezinbestekoa dela.

Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie kanpainan parte hartu duten herritar guztiei, eta baita sariak eman dituzten establezimenduei ere. Guztien ekarpenari esker, Kaishop! ekimenak beste urte batez bere aldarrikapena plazaratu du: **erosi herrian eta euskaraz!**

Horrela, Txorierriko merkataritza, ostalaritza eta euskara indartzen jarraituko dugu denon artean.

TXORIERRIKO BERBAK

Zenbakiak gurean

Irulegi aldean «abar» inskripzioa topau dabe oraintsu. Adituen esanetan, zenbaki baskoniko baten lehenengo lekukotasuna izan leiteke hori ('hamar'). Gu hemen ez gara hain atzera joango, baina tira, gura badozue batetik hamarrerako bidaia egingo dogu alkarre-gaz, Txorierriko euskeran barrena.

1. Umeen lehenengo haginei *txantxurak* esaten deusagu. «Apur bat» edo «pixkat bat» adierazoteko *piti(n) bet* be badinogu. 2. Desbardinak dirala esateko, *gauza bi* dirala dinogu. Neba-arreba *bikotxak* dagoz. Gure etxeak bizitza batekoak izan leitekez, baita *bizitza* edo *bizimoduko bikoak* be.

3. *Hirurrenak* esaten jake hiru egunean segiduan egiten diran mezei. Ume txikiei idunaren inguruan kokoteari eusteko zapi bat jartzen jaken: *hiru puntuko pañelue* (Derio) edo *hiru kurtzeko pañelutxue* (Zamudio).

4. Umea katamar doala esateko *lautxakurka* edo *loutxakur* doala be entzun geinke gure eskualdean.

5. *Boskantoia* sagar klase bat da, bost kantoi edo ertz daukazana. Ganaduak sasoi baten, kilotan barik, erraldetan pisatzen ziran. *Erralde* batek bost kilo eukazan.

6. Aparteko jaiegunik ez eukan asteari *seiastea* esaten jakon, zapatuan behar egiten zanez, 6 eguneko astea zan eta.

7. Behar baino lehenago jaiotzen diran umeei *zazpikiak* edo *zazpi hilebetekoak* esaten deusagu.

8. *Zortzikiak* be izan eitekezan... *Zortziko* erritmo ezaguna be bada.

9. Hildako edo santu baten omenez egiten ziran mezak *bederatziurrenak* esaten deusagu. Ezagunak ziran, esaterako, Ama Birjinari egiten jakozanak.

10. Karta-jokoan, hamar zenbakikoari *txanke* esaten jake. Usain ederreko lore bati (Lonicera sp.) *hamar mandamentu* esaten jake.

Hamaika kontu barri ikasiko doguz entzuten jakin ezker...



Gau eta egun, beldur barik

Txorierriko jaiak hurbiltzen direnean, herriak badaki zer datoren: kaleak berotzen hasten dira, musika urrutitik entzuten da, eta jendeak egunak eta gauak nahasten ditu, festa giroak bere erritmo propioa markatzen duen bitartean. Baina azken urteotan, festa horien azpian, beste mugimendu bat ere sumatzen da, sotila baina gero eta nabarmenagoa. Emakundek, EUDELe eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek bultzatutako Beldur Barik Jaiak kanpainak ez ditu soilik kartelak eta esloganak ekartzen; gure herrietan aspaldidanik mugitzen ari den aldaketa bati izena jartzen dio. Izan ere, festa ez da jada soilik ospakizuna: elkar zaintzen dugunean hasten da benetako festa.

Aldaketa hori ez da oihu handiz iristen, ezta arau gogorren bidez ere. Gure kaleetan gertatzen da, modu naturalean. Jendeak elkarri begiratzen dio, baina ez epaitzeko, ez kontrolatzeko, baizik eta ulertzeko. Lagun batek aurpegia aldatzen duenean, norbait deseroso ikusten denean edo egoera arraro bat sortzen denean, norbait hurbiltzen da eta esaten du: “Ni nago hemen.” Eta esaldi horrek, xumeak baina argiak, giro osoa aldatzen du.

Jaietan gertatzen diren keinu txiki horiek dira gure herrietako bihotza. Komunak ez dira jada gune ilunetan jartzen, argiztapena zaintzen da, eta arriskuak sor daitezkeen tokietan argi gehiago pizten da. Tabernetan eta txosnetan lanean ari direnek badakite zer egin behar duten egoera desatsegin bat ikusiz gero; ez dira ikusle pasiboak, baizik eta giroaren parte aktiboa. Musika eta irudi sexistak baztertzen dira jaiak guztiontzat direla gogorazazteko. Eta sare sozialetan partekatzen diren mezuak ez dira beldurra zabaltzeko, baizik eta komunitatea indartzeko.

Gazteak dira aldaketa honen motorra. Haiek dakarte hizkuntza berri bat, hitzik gabe ere ulertzen dena. Edaria zaintzea, lagun bati esatea “etorri nirekin”, norbait nahastuta edo logale ikusten denean adi egotea, edo sumisio kimikoaren arrastoak antzematen direnean berehala laguntza bilatzea. Ez da heroismoa; arduraren kultura da. Eta kultura horrek jaiak beste modu batera egiten ditu: ez beldurrez, baizik eta konfiantzaz.

Familiek ere badute zeresana. Etxean esaten diren gauza txiki horiek —“Edozer gertatuz gero, deitu”, “Zure

hitzak balio du”— babes-sare oso bat osatzen dute. Gazte batek jaietan zer-bait arraroa sentitzen duenean, badaki etxean ez dutela epaituko. Badaki entzuna izango dela. Eta horrek segurtasuna ematen du, ez soilik jaietan, baita egunerokoan ere. Hori da komunitate batek eskaintzen duen indarra: ez kontrola, konfiantza baizik.

Eta bitartean, antolakuntzan ari diren guztiek —jai batzordeek, elkarteek, tabernariak, udalek— badakite giroa ez dela berez sortzen. Argiztapena, zaintza, prestakuntza, informazioa... Hori guztia ez da dekorazioa. Hori da jaiak benetan seguru bihurtzen dituen. Eta horregatik, gure herrietan askatasuna bermatu nahi da.

Gau eta egun beldur barik bizi nahi dugu. Eta hori ez da kanpaina baten esaldia; gure herrietan gertatzen ari den errealitatea da. Jaietan argiak pizten direnean eta musika hasten denean, badakigu festa hasi dela. Baina benetako festa hasten da norbaitek beste norbaiti esaten dionean: “Ni nago hemen.” Hori baita gure jaietako argirik indartsuena, eta hori baita gure komunitatearen bihotza.

BELDUR BARIK
#JARRERA 2026

gau eta egun

Eraso matxistarik gabeko jaiak.
Fiestas libres de agresiones machistas.

Bultzatzaileak:

araba/álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia diputación foral

GIPUZKOA

EUDEL
ERAKUNDA EUSKAL LEKORTA
ERAKUNDA EUSKAL LEKORTA

Antolatzaileak:

EMAKUNDE
ERAKUNDA EUSKAL LEKORTA
ERAKUNDA EUSKAL LEKORTA

EUSKO JAUIARITZA
GOBIERNO VASCO



T MIKEL REINA BARROS ANER MENTXAKA ALVAREZ

NEREA SANZ OLABARRIETA

Aktorea

“Ez dut aktorea izan nahi bizitza osoan, sorkuntza aldea ere garatu nahi dut”

Jone, batzuetan, Argi gorriak, Mari sorgin ehiztari ... Horiek sonatuenak, baina baita beste obra askotan ere parte hartu du Nerea Sanz Olabarrietak. Larrabetzuko aktoreak, bere ibilbidea hasi besterik egin ez badu ere, dagoeneko bidea egin du, etorkizunerako ere, bere norabidea argi dauka.

Hasteko, agian, galderarik zailena. Zergatik da Nerea Sanz Olabarrieta aktorea?

Egia esan, ez daukat erantzun argirik galdera horretarako. Inertzia izan daiteke. Txikitan eskolaz kanpoko jarduerara asko egin nituen, tartean antzerkia, eta gehien gustatu zitzaidana izan zen, gustuko nuen zelan sentitzen nintzen bertan. Are gehiago, gehien iraun nuen eskolaz kanpoko jarduerara izan zen... eta orain arte. Intuizioa ere deitu ahal zaio. Azkenean gozatzen nuen zerbait aurkitu nuen, eta bide hori jarraitu dut gaur egunera arte. Orain, honetaz bizi nahi dut.

Eta ikasketei dagokienez, zein izan da zure bidea?

Sondikako antzerki eskolan eman nituen nire lehen pausoak Aitor Fernandinorekin batera, bertan egon nintzen Txorierriko Institutuko garai luzean. Gero, Batxilergo Artistikoa egiteko hautua hartu nuen, Bilboko Ibarrekolanda zentroan. Bertan, kultura mota desberdinez bete nintzen. Baina gradua aukeratzera aurreratu beharra nuen, eta Madrilera RESAD antzerki eskolara joatea erabaki nuen. Egia esan sartzeko probak saiatzearen egin nituen, banekien oso zaila zela sartzea. Hurrengo urterako probak

zelangoak ziren ikusteko egin nituen gehiago, berez, urte horretan sartzeko baino. Zorte handia izan nuen eta sartu ahal izan nintzen. Lau urteak osatu eta gradua atera nuen.

Eta bide horretan, zenbateko influentzia uste duzu izan duela Larrabetzun jaiotzeak?

Azkenaldian asko pentsatu izan dut horretan. Ez banintz Larrabetzun jaioko, beste edozein herritan jaioko banintz, ez dakit non egongo nintzatekeen, baina zalantzan jartzen dut antzerkigintzaren bide hau jarraituko ote nuen. Larrabe-



Sanz, Argi Gorriak eta Mari Sorgin Ehiztari telesaietan. Primeran eta Makusi plataformetan daude ikusgai.

tzu kulturalki oso piztuta dagoen herria da, txikitatik kultura eskaintza zabala eta anitza bizi ahal izan dugu: Hori Bai Gaztetxean, jaietan, asteburuetan... Hori guztia barik ez dut uste orain hemen egongo nintzenik. Badaukat sentsazioa oso garrantzitsua izan dela nire bidean.

Hori izan daiteke arrazioa Larrabetzun hainbesteko kultur eragile desberdinak egoteko?

Izan daiteke. Denetarik dago. Herriak bere herritarrengatik funtzionatzen du, eta Larrabetzun kultur maitale asko dago. Euskal Herritik bidaiatzen dudanean, Larrabetzuko naizela esaten dudanean, asko dira herria ezagutzen dutenak. Badauka zerbait berezia Larrabetzuko. Bere herritarrek izan daitezke, kulturalki oso aktiboak, gogoak daude gauzak egiteko. Aspaldiko inertzia bat dago kulturarekiko eta herri mugimenduarekiko. Egia esan, ez daukat erantzun argirik, jendea bera izan daiteke.

Eta herritar horien artean, Olaia Aguayo: kinto berekoak, kuadrillakoak, lagunak eta lankideak.

Komediarekin hartzen dugu egoera. Pentsa daiteke gurea lanbide oso lehiakorra dela, baina Euskal Herrian ez daukat hainbesterako sentsazio hori, eta are gu-

“Larrabetzun aspaldiko inertzia bat dago kulturarekiko eta herri mugimenduarekiko”

txiagi Aguayorekin. Lehen unetik berari gertatu zaizkion gauza zoragarri guztiak, nik opari bat bezala hartu ditut niretzako. Askotan casting berdinetara aurkezten gara eta elkarri asko laguntzen diogu. Laguntasun oso sendoa daukagu.

Pentsatzen zenuten txikitik, lagunak izateaz gain, eszena ere partekatu zenutenik?

Ez. Ni antzerkigintza munduan mugildu nintzen, bera ere arte munduan sartu zen, baina beste alde batetik. *Jone, batzuetan* filmean parte hartzeko aukera izan zuenean, nik argi izan nuen aukera ezin hobea zela. Kuadrillan beti dago anekdotak eta istorioak kontatzen, baina kontatzen dakienaren sentsazioa izan dut beti. Beraz, ezustekoa bai izan zela, baina ez ninduen harritu. Egia esan, ez nuen

inondik inora imaginatuko, baina gero, ondo pentsatuta, badakit gertatu ahal zen gauzarik naturalena izan dela. Ezusteko polita izan da.

Hain zuzen ere, dagoeneko elkarrekin lan egin duzue eta guzti *Jone, batzuetan* lanean. Zer suposatzen du zuentzako?

Oso naturala izan zen. Azkenean, nire pertsonaia bere laguna zen: juerga baten, lagunekin, gozatzen eta zaintzen. Sara Fantovaren lan egiteko moduak ere asko lagundu zigun. Oraindik uste dut ez gara kontziente zenbateko garrantzia izan duen gure ibilbidea *Jone, batzuetan* filmarekin hasteak. Lanean hasi naizenean konturatu naiz industria beste alde bateatik doala. Industria ez da *Jone, batzuetan*. Zerbait oso berezia izan zen, grabaketa, aktoreak... Dena. Ikaragarria izan zen produkzio lana, eta oro har, prozesu guztiak zerbait oso berezia sortu zuen. Uste duguna baino garrantzitsuagoa iruditzen zait horrelako lan eredu bat zinematara ailegatzeara.

Aguayo bezalako lagun batetik Itziar Ituño bezalako erreferente batekin lan egitera heldu zara oso denbora gutxian. Beste produkzio mota bat izan da *Argi gorriak*. Askoz presa gehiago zuen, haus-

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...
MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea - Derio 944 540 386

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialista gurdiak
zentro bakar batean
—Aurrekontua doan

—Especialitatea:
umeak

OK
OAKLAND
ENGLISH

L. LEIZAOLA PLAZA, 2 - ZAMUDIO
661 874 329



Jone, batzuetan filma Primeran plataforman dago ikusgai.



aikor.eus/nahieran
atalean ere ikusgai

nartzeko eta pertsonaiak ezagutzeko denbora gutxiago izan dut. Presio gehiago sentitzen dut horrelakoetan, denboraren gestio aldetik batez ere. Horregatik, Ituño bezalako aktore bat ondoan izateak asko lasaitu nau. Denbora asko darama indutrian eta nire tentsioak eta beldurrak lasaitzeko gai izan da. Horrela ere ikusten duzu, berez, posible dela horrelakoetatik gozatzea ere. Oso eskertuta nago mundu hau hainbeste ezagutzen duen aktore batekin lan egitegatik.

Alde horretatik, Luciaren paperak zer eman dizu?

Prozesu luzea izan zen, baina oso lotuta amaitu zuen Luciaren pertsonaiarekin. Apur bat galduta neukan puntu inozente eta dibertigarri hori berreskuratzen lagundu dit. Askok maite dut Lucia eta horregatik jarraitzeko gogo handiak ditut.

Hala ere, noizbait aipatu duzu antzerkia nahiago duzula, zergatik?

Gero eta argiago daukat antzerkia eta zinema bi mundu oso desberdin direla. Gaur egun, pertsonalki, antzerkian sentitzen eta bizitzen dudana, nire lankideekin eta publikoarekin zuzenean, oraindik ez dut zineman sentitu. Antzerkian denbora gehiago dago gauzak lantzeko eta harremanak sortzeko, publikoarekin adibidez. Idealena izango litzateke zinemako prozesuek antzerkietako erritmoak izatea. *Jone, batzuetan* lanean, esate baterako, horrelako zerbait lortu genuen. Zinema askoz arinagoa da, artifizialagoa.

Baina, batez ere hastapenetan, izen bat lortzeko errazagoa da zinema.

Antzerkira askoz jende gutxiago doa.

“Nahi dudana da lagunekin elkartu, sortu eta forma eman esan nahi dugunari”

Gaur egun film bat ikusteko jendea ez da ezta etxetik atera behar. Orduan, askoz jende gehiagok ikusten dut pantailaren aurrean egiten duzuna, eta errazagoa da ezagutaraztera ematea.

Eta bi munduak elkar elikatzen dira?

Bi profesio desberdin dira. Kamara aurrean izatea da edo antzoki bateko azken ilarako ikuslearengana heltzea. Bietara modu berean heldu behar zarelako. Zinemara entseguak egin barik joan zaitezke, antzerkigintzan, ordea, hori ezinezkoa da. Eta nik bide horretaz gozatzaren dut gehien, pertsonaia ezagutzeaz, lankideekin lan egiteaz. Hori da zatirik sortzaileena, niri gehien gustatzen zaidana, eta ikuslearekin konektatzen duzunean, denak egiten du gora, harremana eta erantzuna zuzena delako. Amankomunak diren gauzak daude, baina gero eta argiago daukat bi mundu desberdin direla.

Euskal zinema modan edo goranzko bidean dagoela diote, zelan ikusten duzu zuk?

Jendea lan handia egiten ari da, bizirik dago. Beti dago Euskal Herritik kanpora mugak zabaltzeko intentzioa eta hor sartzen da zein puntutara inoiz heltzen den

euskal zinema. Beharrez badagoen, adibidez, ateratzeko edo ez. Ez dut uste askok euskal zinema deitzen dioten hori euskal zinema denik. Niretzako euskaraz eta euskaldunentzako zinema da euskal zinema, ez Euskal Herrian kokatuta dagoen edozein produkzio. Horrelako asko daude azkenaldian.

Eta euskal antzerkia, zelan dago?

Antzeko egoeran dago. Bueno, are eta jende gutxiago doa euskal antzerkia ikusten. Borroka etengabea da, badakizulako seguruenik galtzen aterako zarela, baina borrokatu behar den zerbait da. Gure belaunaldietan, gainera, gaztelaniak indar handia hartu du azkenaldian, baina gure hurbileko errealitatearen erreferente izan nahi dugu. Ni justu orain gazte konpainia baten nago eta errealitate eta borroka hori daukagu, ez garelaroko denak euskaldunak.

Zuk Madrilen ikasi duzu, Euskal Herrian badago ikasteko aukerarik?

Bai, Dantzerti bezalako eskolak daude. Aukera bikaina da. Nire kasuan, apur bat kasualitatez joan nintzen Madrilera. Apur bat idealizatuta dagoela esango nuke, ez da beharrezkoa bertara joatea bidea egin ahal izateko. Inurritegi bat da, ez duzu zure tokia aurkitzen. Eskaintza handia dago, baina jendetza ere ikaragarria da. Bere ametsaren bila doan jende asko doa, toki guztietatik gainera. Esate baterako, Madrilen ez duzu aurkituko entseguak egiteko doako tokirik, Euskal Herrian Gaztetxeak edota bestelako espazioak ditugu. Dena da askoz errazagoa, komunitate bat dago.



Aloka(h)iru telesail berria udazkenean estreinatzekoa da Primeran plataforman.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Lagunekin lan egiten ikusten dut nire burua, izan antzerkian edo zineman. Sorkuntza aldea ere gehiago garatu nahiko nuke. Hau da, lagunekin elkartu eta sortu eta forma eman esan nahi dugunari. Hor imajinatu nahi dut nire burua. Azken obra bai izan dela sorkuntza kolektibo bat: sei pertsonaren artean sortu dugu antzerki

bat. Ez dut aktorea izan nahi nire bizitza osoan, sorkuntza alde hori garatu nahi dut. Hori bai, taldean, lagunekin, bakarrik errespetu handia ematen dit.

Horretarako daude, adibidez, azkenaldian indar handia hartu duen Udalbiltzaren Geuretik Sortuak bezalako egitasmoak.

Bai, laguntza asko daude. Sentsazioa

daukat askotan gehiegi itxaroten dugula, batzuetan nahikoa da ideia izatea garatu ahal izateko. Bizitza badoa aurrera eta egin nahi zenuen obra hori amets soil batean geratzeko arriskua dago. Hobe da saiakera egitea. Eta horrelako laguntzek aurrerapausoa emateko oso lagungarriak dira. Ni pozik egongo nintzateke lagunekin obra bat egin eta Euskal Herriatik erakutsiko bagenu. ●

Ekin eta ekin 39 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.




TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKARA

PAUSO BATERA

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Irailaren 1etik 25era



Txorierri etorbidea 9, 1. lokala-erdisotoa - DERIO

944 540 062

euskaltegia@txorierri.eus



LEZAMAKO JAIK

T MIKEL REINA BARROS

GAIZKA PEÑAFIEL

Indarberrituta dator Basobaltz Jai Batzordea

Irailera ailegatzea askorentzako albiste txarra izaten da: lanera edo ikasgelara itzultzea esan nahi du. Lezaman, ordea, irailari bestelako begiekin begiratzen diote. Ez dago udari agur esan eta errutinara heltzeko modu hoberik jai giroan baino. Hain zuzen ere, iraileko lehen egunetan ospatuko dituzte Lezaman herriko jaiak: irailaren 2tik 15era.

Aurten, gainera, indarberrituta dator Basobaltz Jai Batzordea. Lezamako Udaletik urte hasieran dei egin zuten Jai Batzordean herritar gehiagok parte hartu zezaten. Eta erantzuna “ezin hobea” izan da. Orain arte lan talde “oso txikia” zeukaten, baina azken bileratan 10 pertsonatik gora elkartu dira. Jende berria sartzearekin batera, proposamen berriak eta ikuspuntu berriak ere heldu dira. Eta hori “apur bat beranduago” hasi direla: “Azkenean denbora aldetik ez dugu gehiegi izan, horregatik ez dugu iraultza handirik egin nahi izan. Hori bai, autokritikoak izango gara egiten dugunarekin”.

**Orain arte lan talde
“oso txikia” zeukaten,
baina azken bileratan
10 pertsonatik gora
elkartu dira**

Lezamarrak, adibidez, gehiago atezartzen dira jaietako barikuan zapatuan baino. Hori da adin guztietako herritarren eguna. Baina Jai Batzordetik “pena

handiz” bizi izan zuten iazko kuadrillen jaitsiera. Hiruzpalau taldek bakarrik parte hartu zuten, eta hori “aldatu beharra” zegoela argi izan zuten lehen unetik. Jaitsiera indartzeko helburuarekin, Oizeder Mayo Gazteako esatariak girotuko du arratsaldea. “Horrela, parte hartzea indartu nahi dugu eta batez ere lezamarrrei deia luzatu jaitsieran bakoitza bere moztorroarekin parte hartzera”.

Aurtengo moztorroetarako gaia kolore gorria da. 10 urteko Markel Larrañaga Iturriozek egindako marrazkiarekin ilustratu dute gaiaren aukeraketa. Kuadrillek irailaren 2ra arte daukate izena emateko. Horretarako bi bide zabaldu dituzte. Ba-

ANDRAMARIAK

Irailak 2, eguaztena San Antolin Eguna, Leginan

12:30 **Meza**

13:30 **Luntxa**

Irailak 4, barikua

18:00 **Koadrillen jaitsiera**
Mozorro gaia: Gorria

19:00 **Txupinazoa eta pregoia**
Ekidazu Abesbatzaren eskutik

19:15 **Animazio musikatua** Oizeder
Mayoren eskutik

21:30 **Xaukena** elektrotzaranga

22:00 **Txosnen irekiera**

23:30 **Ganibet**

01:00 **Zirkinik-Bez** erromeria

04:00 **Txosnako musika**

5, zapatua

11:30 **Lezamako IV Pumptrack** erronka
Zorribike elkarteak antolatuta

11:30 **Puzgarriak eta eskulanak**
haurrentzako, Udaletxe atzekaldean

14:00 **Batukada**

14:30 **Bazkaria eta bingo** Adintsuen
etxean

15:00 **Herri Bazkaria** karpan, tiketak
herriko komertzio eta tabernetan
salgai abuztuaren 28a arte

17:00 **Bingo musikatua** Zorritzketan
elkarteak antolatuta, karpan

18:00 **DesOrekatua** antzerkia *Magia*
en *Zapatillas*en eskutik, eskolan

18:00 **Eskupilota partiduak** frontoian

19:00 **Kresaltsu** trikipotea

22:30 **Mirua, Bengo eta Dj Kene**

04:00 **Txosnako musika**

6, domeka

11:30 **Dultzaineroen kalejira**

12:30 **Meza**

13:15 **Ekidazu Abesbatza + Lezamako**
Areto Dantza Taldea
Erakustaldia Txosnagunean

15:00 **Trikitrixa eta Taloak**
Iñaki Lekeritaren eskutik + Pintxoak
txosnagunean

17:00 **Kurutze Dantza Taldea**
Hilario Astorki plazan

18:30 **Herri kirolak** Euskaldun Berria
plazan

7, astelehena Odoloste eguna

18:30 **Pintxo potea** tabernetatik
Berakatz taldearekin

8, martitzena Andramari eguna

11:30 **Jolasak** Biziaren eskutik
Polikiroldegian

12:30 **Meza**

13:45 **Luntxa** Txosnagunean

17:30 **Futbol Txapelketako finalak**

9, eguaztena

12:30 **Difuntuen Meza**

10, eguna Bolalekuko jaiak

12:00 **Paelletarako izena-ematea**

14:00 **Paellen aurkezpena**
eta **Trikipotea**

17:00 **Mus Txapelketa**
Izen-ematea: 20€ / bikotea

17:30 **Egur-jolasak** haurrentzako

18:00 **Txokolatada + Gozokiak**

19:00 **Xaibor** diskofesta





tetik, @lezamako_jaiak Instagram kontua, eta bestetik, basobaltzjaibatxordea@gmail.com posta elektronikoa.

EUSKAL NORTASUNA INDARTUZ

Txupinazoa eta pregoiaren ardura Ekidazu abesbatzak izango du. Abesbatzak 25 urte betetzen ditu aurten eta urteurrena borobiltzeko “aukera bikaina” dela uste izan dute. Hain zuzen ere, musikan ere “arreta berezia” jarri nahi izan dute, batez ere barikuko eskaintzan. “Jai Batzordean komentatu genuen lehen gauzetako bat izan zen barikuan erromeria baten sumatzen genuela, duela bi urte, esate baterako, Puro Relajo taldeak giro bikaina sortu zuen eta horrelakoak berriro ekarri nahi izan ditugu. Gehiago pentsatu nahi izan dugu lezamarrengan barikuan, eta ez

“Musika euskalduna bermatu nahi izan dugu, baita emakumeen presentzia indartu ere”

hainbeste kanpoko jendearengan”. Zirkinik Bez erromeriak hartuko dio lekukoa Ganibet taldearen kontzertuari.

Zapatuko kontzertuetarako ere ikuspegi berritzailea izan dute. “Musika euskalduna bermatu nahi izan dugu, baita

emakumeen presentzia indartu ere”. Horregatik, Mirua taldea eta Bengo artista igoko dira Lezamako jaietako oholtzara, eta DJ Kenerekin luzatuko dute jai giroa gaueko ordu txikietara arte. Gaueko kontzertuetara heltzeko, ordea, indarrak hartu beharra dago. Horretarako, ez dago herri bazkaria baino hoberik, abuztuaren 28ra arte eman daiteke izena.

Domekarako ere “euskal giroa” hauspotu nahi izan dute. Dultzaineroek kalejira osatuko dute goizean. Eguerdian, Ekidazu abesbatzak eta Lezamako areto dantza taldeak erakustaldia eskainiko du txosnagunean. Iñaki Lekerikaren eskutik, trikitixa doinuek talo eta pintxoekin uztartuko dituzte bazkalorduan. Eta arratsaldean, Kurutze dantza taldeak emankizuna eskainiko du Hilario Astor-

**ANIMAZIOAREN MUNDU HARRIGARRIAN
AMESTEN DUZUN GUZTIA ESKURA DUZU
IRRIKAZUREKIN!**

APAR-FESTA · PUZGARRIAK · ESKOLAKO JAIK
TAILERRAK · ROBOTIKA · DISKO-FESTA

irrikazu
ANIMAZIOA

irrika@irrikazu.com · 656 786 959 · 688 892 013
www.irrikazu.com

**LA
GUN
KOR**

Aretxalde, 68 - Lezama
944 556 538 · 607 209 343
lagunkor@lagunkor.com
www.aseosorialagunkor.com

AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA

ki plazan eta herri kirolen erakustaldia egongo da Euskaldun Berria plazan.

Ekintza gehienak barikutik domekara osatuko badituzte ere, Jai Batzordetik gogoratu dute irailaren 10era ere egun bakoitzean ekimenak antolatu dituzte, asteleheneko Odoloste Egunean, martitzeneko Andramari Egunean, baita egue-neko Bolakekuko jaietan ere.

ATSEDENIK GABE

Baina ez pentsa lezamarrek atsedeen hartzeko denbora gehiegirik izango dutenik. Izan ere, irailaren 11n emango diete hasiera Kurtzeko Jaiak, eta irailaren 15era arte luzatuko dituzte. Iazko arrakastaren ostean, aurtengoa ere bariku arratsaldean jarriko dituzte umeentzako puzgarriak. "Iazko erantzuna bikaina izan zen, eta aurtengoa errepikatzea erabaki da". Jarraian emango diete hasiera ofiziala jaiak txupinazoarekin eta odoloste janarekin, guztia musikarekin girotuta.

Hortik aurrera, ez dira faltako betiko ekimenak Zorribike Txirrindulari Taldeak antolatutako gazte martxatik, tortilla eta sukalki txapelketara, Slaloma edota Mikel Llodioaren memorialarekin. Izan ere, zapatuan dira elkartzekoak bazkarian jenderik gehien. Egunduek luzea izango da Kurtzean, are gehiago Belharra taldearen kontzertuarekin eta DJ Matrakasen musikarekin.

Antolatzaileek nabarmendu dute aurtengoa errepidea ekintzak dauden ordutegian itxi egingo dutela, baina gainontzekoan, goizaldean batez ere, irekita egongo dela bidea. ●



RUTH BILBAO

KURTZEKO JAIK

11, barikua

18:30 Umeentzako puzgarriak

20:00 Txupinazoa eta odolosteak tabernatan

20:30 DJ Dantzatzeko prest

23:30 Txosnako musika

20:00 Fruitzariak kontzertua

20:00 Bokatak

22:30 Sorgina erretzea

22:30 Belharra kontzertua

00:00 DJ Matrakas

12, zapatua

09:00 Mahai eta aulkien banaketa

10:30 VII Kurtzeko MTB Gaztetxo Martxa Zorribikek antolatuta

11:00 Sukalki eta tortila txapelketarako izen-emotea

11:00 Ume eta gazteentzako jolasak

14:00 Tortila eta sukalkien aurkezpena

16:30 Umeentzako ekintzak

16:30 Giza futbolina

17:30 Areto dantzen erakustaldia Lezamako Areto Dantza Taldeak antolatuta

18:00 Herri bingoa

13, domeka

11:30 Euskal dantzak Kurutze dantza taldearekin

12:30 Slalom Kurtzeko poligonoan

12:30 Meza

17:00 IV Mikel Llodioaren Memoriale Luako Txapelketa Athleticek instalazioetan, Lezama Sport Ktk antolatuta

14, astelehena

12:30 Meza eta ostean luntxa

15, martitzena

Meza

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LÀ MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik

Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

Eguzki eklipsea, errepikaezina

Eklipse totala: Txorierriko herri gehienetatik ikusgai



Eklipse partziala: Larrabetzun eta Goitioltzan ikusiko dena

T ANER MENTXAKA ALVAREZ

Abuztuaren 12koa egun berezia izango da. Txorierrin eguzki eklipse totala biziko dugu. Ilargiak guztiz estaliko du eguzkia, segundu gutxi batzuetan izango bada ere. Eklipsea nondik behatzen dugun garrantzia handia dauka: Bizkaia hegoaldean eta mendebaldean totala izango da eklipsea, baina iparraldean eta ekialdean eklipsea partziala izango da, hau da, eguzkia eta ilargia ez ditugu guztiz lerratuta ikusiko.

Bien arteko muga gure bailaran dago: herri gehienetan eklipse totalaz gozatu ahalko dugu, baina Larrabetzuko Urian eta iparralderago dauden auzoetan partziala izango da, Lezamako Goitioltzan bezala. Ia bi orduz gurutzatuko du ilargiak eguzkia, baina eklipsearen maximoa (iluntzeko 20:28ean) gurean oso laburra izango da, apenas 12 segundukoa (Gaztelako herri batzuetan ia bi minutu iraungo du). Txorierrin, azkenekoz 1905ean bizi izan genuen fenomeno hau, eta mende honetan ez da berriro gertatuko. *FOMO*a izugarria da, beraz.

Eklipsea gozatzeko badira hartu beharreko hainbat neurri. Ana Galarraga Aiestaranek gomendio hauek eman ditu Elhuyar Zientzia aldizkarian:

1. Eklipsea arratsaldeko azken orduan hasiko da. Hortaz, Eguzkia nahiko baxu egongo da zeruan, 8º inguruko altueran. Ipar mendebaldeko zerumuga garbi ikusten den leku bat bilatu behar da. Eta kontuan izan eguraldiaren iragarpena, noski.
2. Ilargia 19:30ak aldera hasiko da Eguzkiaren aurretik igarotzen. Pixkanaka joango da estaltzen, eta, ordubete geroago, 20:27an, eklipsearen maximoa izango da. Ilunabarra 21:30ak aldera izango da, pare bat minutu geroago desagertuko da

- guztiz Ilargia Eguzkiaren paretik.
3. Ez ahaztu begiak babestea! Bestela, proiektatuta ikus daiteke, itzalen bi-

dez. Ikusmen-arazoak dituztenentzat, badaude aplikazioak soinu bidez jarraitzeko eklipsea.



Mark Twainen *Yankee bat Arturo Erregearen Gortean* eleberrian, protagonista eguzki eklipse batez baliatuko da estualdi batetik ihes egiteko. Hortik aurrera denboran atzera bidaiatu duen XIX. mendeko Hank Morganek, bere zientzia eta teknologia ezagutzak aprobetxatuko ditu Arturoren aholkulari nagusi bilakatzeko, eta Merlin aztia zokoratzeko. Egile irudimentsuaren fruitua kasu horretan, badira baina horrelako fenomeno astronomikoz aprobetxatu diren hezur-haragizko pertsonaiak.

Eguzki eta ilargi eklipseak, gertakizun zirraragarriak dira; zirraragarri bezain beldurgarriak izan ere. Zer irudituko ote zitzairen gure arbasoei Ilargia gorritzen edo egun argian Eguzkia desagertzen ikusten zutenean?

Txinatarren ustez dragoi batek jaten zuen Eguzkia, bikingoen kasuan Fenrir otsoak, Ipar Amerikako choctawentzat, berriez, katagorri beltz batek. Piztia danborren eta oihuen bidez uxatzen saiatzen ziren hainbat kulturatan. Kasu batzuetan gertaera gatazkatsuen seinaleztat hartzen ziren, beste batzuetan, aldiz, Eguzkia eta Ilargiaren arteko maitasuna islatzen zutela iruditzen zitzairen.

Orain jakin badakigu eguzki eklipsea, Ilargiak bere argia oztopatzen digunean gertatzen dela. Ilargiak 28 egun behar baditu bira bat osatzeko, zer dela eta ez daukagu eklipse bat hilean behin?

Gure satelitearen biraketa ez da gertatzen Lurraren biraketaren plano berdinean, 5º okertuta dago. Hori dela eta, batzuetan, Eguzkiaren gainetik doala ematen du, beste batzuetan azpitik. Horregatik hain zuzen ere, eklipseetan ez da beti Eguzkia guztiz estaltzen, eta eklipse partzialak eta eraztun erakoak ditugu. Gainera, kasualitatez, Lurretik ikusita, Ilargiaren eta Eguzkiaren tamainak oso antzekoak dira, ezin egokia-goa fenomenoaz disfrutatzeko.

Ilargi eklipseen kasuan, Lurra da Ilargian itzala eragiten duena, Eguzkia eta Ilargia oposizioan daudenean, ilbetea. Berriz ere, plano desberdintasuna dela eta, eklipsea ez da hileroko gertatzen, ge-

hienetan, Lurra eragindako itzala goitik edo behetik pasatzen delako.

Ikusgarriak izateaz gain, zientziak etekin handia atera die eklipseei. Gure izarren argia hain potentea denez, zaildu egiten du bere azalean gertatzen diren fenomenoak aztertzea. Ilargiak izkutatzen duenean, orduan koroa, konkorrak eta erupzioak aztertu ditzakegu eta, adibidez, komunikazioetan eragina duten eguzki ekaitzak hobetu ulertu. Eguzkitik oso gertu dagoenez, Merkurio aztertzea ere konplikatu egiten da. Adibidez, Einstein-en erlatibitatearen hipotesia frogatzeko planeta horren orbitaren neurketa zehatz bat egin behar zen, eta horretarako 1919ko maiatzaren 28ko eklipsea aprobetxatu zen.

Oraindik ere baliagarriak diren arren, egun satelite artifizialak ditugu. Solar Orbiter adibidez, 2024ko martxoan Eguzkitik 46 milioi km-ra hurbildu zen, eta inoiz gertuen atera diren irudiak lortu zituen. Bere aldetik Sener enpresa bizkaitarrak lidertzen duen Proba-3 satelite bikoteak, eklipseak simulatzen hasi zen 2025eko urrian: batek kamera dauka, eta besteak itzala egiten dio.

Liluragarriak, beldurgarriak, Unibertsoa hobeto ulertzeko tresnak... eta hasieran aipatu bezala, historian ere eragina izan duten fenomenoak.

Cristobal Colonen eta bere marinelen hirugarren bidaiari Jamaikara iritsi ziren, eta indioek ongi etorria eman, lagundu eta elikatu egin zituzten. Europarren barrabaskeriak zirela eta, bertokoek janaria emateari utzi zieten. Nahaspilatik irteteko, Colonek

gertaera astronomikoak zituen almanaka batean ilargi eklipse bat izango zela ohartu, eta gertaeraz baliatu zen natiboak mehatxatu eta euren laguntza berreskuratzeko. Herodotok, duela 2.000 urteko mediararak eta lidotarrak borroka luzean zebiltzala kontatu zigun. Liskarretako baten erdian, eklipseak eguna gaua egin zuen, eta borrokalariak jainkoen errieta zelakoan, bakea egin zuten badaezpada ere.

XIX. mendean, berriez, Shawnee indioen liderrak ziren Tecumseh eta Tenksawatawa herrikideak elkartzen zebiltzan. Gerora Estatu Batuetako lehendakaria izango zen William Henry Harrisonek aipua kendu guran, bere jainkoak ahulak zirela esan zien, boteretik ez zutela. Ez dakigu zelan, baina Tenksawatawak bazuen eklipseen berri, eta Eguzkia zeruan geldiaraziko zuela iragarri zuen. Ustela irten zitzaion politikari oldarkorrari, eta indioen arteko batasuna indartu baino ez zuen egin.

Hank Morgani ondo etorri zitzaion zientzia ezagutza sutzarretik libratzeko. Spoilerrik ez egiteko izena aipatuko ez dudana beste ipuin batean, trikimailu bera erabiltzen saiatu zen misiolari espainiar bat. Bere zoritxarrerako, eta Dresde Codi-cean ikusten den bezala, Mayek bazuten eklipseen berri, eta noiz gertatuko ziren auresateko gai ziren. Fraidea ospakizunetan parte hartzera behartu zuten, bera izan zen izarra, burua galduz Ixbalanqué heroi bikien omenean. ●

XABIER DIAZ

@xa2_baraka@mastodon.eus

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Krimasajak

clinica dental
ZAINDUZ
hartz klinika

Txoriem etorbidea, 9 - Lorge | Artea erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarrauz Facebooken

Ala-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorierri etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



COORDINADORA DE BARRIOS

BATUZ

JONE GOITISOLO URIARTE

Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

Leku bat

Ekain amaieran Madrilén izan ginen, GRIGRI Projects-eko lagunek *Nola bihurtu beldurra ospitalitate?* lelopean antolatutako topaketetan parte hartzen, gure NomadaLab proiektua elikatzeke asmatan. Galdera sinplea dirudi botatakoak, baina bete-betean heltzen dio egungo erronka nagusietako bati. Izan ere, pentsatu ahal duzu inoiz zer egiten dugun edo nola jarduten garen ezezagun edo arrotz sentitzen dugunarekin? Beldurra elikatzen dugun ala zubiak eraikitzen saiatzen garen? Gero eta anitzagoak diren gure herri, hiri eta komunitateetan, elkarbizitza nola eraiki asmatzeak inkognita bat izaten jarraitzen du.

Esperientziak eta teoriak erakutsi digute bazterketa ez dela baliabide faltaren ondorio hutsa.

Batzuetan bakardade gisa agertzen da. Beste batzuetan, aurreiritzietan. Baita isiltasunean, epaiketetan edo pertsona batek inon tokirik ez duela sentitzen duenean ere.

Leku berri batera iristeak ez du soilik hizkuntza, egiteko modu edota administrazio-sistema berri bati aurre egitea suposatzen. Elementu gehiago daude eragiketean: bakardadea, harreman-sareak zerotik berreraiki beharra, etxetik urrun egotea, mesfidantza edo aurreiritziei aurre egitea, kasuak kasu norbere gaitasunak etengabe justifikatu beharra, eta abar.

Horregatik, ospitalitateaz jarduten garenean, gurerak datorrenaz hitz egitea baino gehiago da. Ospitalitateaz hitz egitea, komunitateaz aritzea da. Nor sar-

tzen den barruan eta nor geratzen den kanpoan. Nork sentitzen duen onartua izan daitekeela eta nork ez. Eta denok dugu zerbaiten parte garela, leku bat dugula, sentitzeko beharra. Norbaitek gure izena gogoratzea, nola gauden galde-tzea edota ez gaudenean gure hutsunea sumatzea. Zainduak izateko beharra, finean. Eta honek lotura zuzena du ongizatearekin, osasun emozionalarekin eta bizi-kalitatearekin.

Azken urteotan, ordea, maiz entzun ditugu beldurrean oinarritutako diskurtsoak. Kanpotik datorrena, desberdina dena edo gure errealtatetik urrun dagoena mehatxu gisa aurkezten duten mezuak. Aurreko batean ere aritu ginen beldurrean oinarritutako gorroto diskurtso hauez berrikeretan. Eta gaurkoan, ezin aipatu gabe utzi ezta, migratzaileen inguruan sorturiko estereotipoak, egoera zaurgarrian bizi diren pertsonen buruzko esanak, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak arriskutsu gisa aurkezten dituzten ideiak edo sexu-orientazio eta genero-identitate ezberdinen inguruko mesfidantzak. Gu eta "besteak" bereiztearen inertzia.

Eguneroko bizitzak, halabaina, beste-lakoa erakusten digu: istorioak partekatzen direnean, mesfidantzak indarra galtzen duela. Zeren, harremanak sortzen direnean, komunitatea indartu egiten da. Aurreiritzi gehienak urruntasunean hazten baitira eta gertutasunean, berriz, desegin. Ospitalitatea, azken finean, horixe da: pertsona bere osotasunean ikusteko gaitasuna. Ez bakarrik bere egoera

administratiboa. Ez bakarrik bere jatorria edota identitatea. Bere duintasuna. Bere potentziala. Bera, oso-osorik.

Eta ez zaitez erratu, ez gara perfektzioa bilatzeaz ari. Ez dugu aniztasunaren inguruko gai guztietan aditu izan behar pertsona bat errespetatzeko. Nahikoa da ikasteko prest egotea, entzuteko eta elkarbanatzeko prest. Akatsak onartzeko eta zuzentzeko borondatea izatea. Komunitate irekiak, perfektuak baino, ikasten jarraitzeko prest dauden horiek baitira. Eta zuk beste daukate irakasteko "besteak". "Haiek" beste ikasteko zuk.

Askotan pentsatzen dugu bazterketaren aurkako borroka politika publiko handien bidez egiten dela bakarrik. Eta, zalantzarik gabe, politika publikoek zeresan handia dute. Baina badira beste maila batzuk ere: komunitarioa, auzokoa eta egunerokoa. Pertsona bat komunitate baten parte sentiarazten duten elementu asko ez dira legeetan agertzen. Agurretan agertzen dira, entzutean, konfiantzan eta hurbiltasunean.

Horregatik, zaintzen duten lekuen benetako indarra harremanetan dago, pertsonen baliabide bat ezik, aitortza bat aurkitzen dutelako bertan. Azken batean, ez gabilta ate bat irekitzeaz soilik, "hemen leku bat duzu" esateaz baino. Eta agian horixe da ospitalitatearen benetako esanahia: inor soberan egongo ez den lekua(k) eraikitzea. Beldurra ez da desagertuko, baina entzuteak, hurbiltasunak eta harremanek eraldatu egiten dezakete. Orain da momentua hormak edo zubiak eraiki nahi ditugun erabakitzeko. ●



MIREIA SOBA MARTINEZ
Psikologoa · @ametsapsikologiazentroa

SOSTENGU SAREA

Ta uda hau hain perfektua ez bada?

Uda iritsi da, eta badirudi denok primeran pasatzen egon behar dugula. Bidaiaak, jaialdiak, lagunekin afariak... Sare sozialak irekitzea besterik ez dago ideia bera etengabe jasotzeko: denak primeran ari dira pasatzen.

Baina kontsultan gero eta gehiago ikusten dugun errealitate bat dago: pertsona askok ilusio baino presio handiagoarekin heltzen diote udari.

Oharkabean, aisialdia azterketa moduko zerbait bihurtu dugu. Jada ez da nahikoa atseden hartzea; badirudi egun bakoitza aprobeixatu behar dugula, esperientzia ahaztezinak bizi eta ia derri gorrez zoriontsu izan. Gure benetako oporrak sare sozialetan ikusten ditugunen antzekoak ez direnean, frustrazioa agertzen da.

Horri lotutako kontzeptuetako bat FOMO delakoa da (Fear Of Missing Out), hau da, zerbait galtzen ari garenean beldurra. Horren ondorioz, besteekin alderatuz, etengabe aktibo egon behar dugula sentitzen dugu. Gure egunerokoa besteen unerik onenekin alde-

ratzen dugu, eta konparaketa horrek ia beti kalte egiten digu.

Horri gehitzen zaio autore batzuek 'zoriontasunaren diktadura' deitzen dutena: etengabe ondo sentitu behar garenean ideia. Nekatuta, aspertuta, triste edo planik egiteko gogorik gabe egotea saihestu beharreko zerbait balitz bezala bizi dugu. Hala ere, emozio deserosoak ere bizitzaren parte dira, eta uda izate hutsagatik ez dira desagertzen.

Egoera honen beste aldean bakardadea sentitzen duten pertsonak daude. Garai honetan jarduera soziala askoz ikusgarriago bihurtzen da, eta horrek isolamendu sentsazioa areagotu dezake. Ez derrigorrez urteko beste garai batzuetan baino bakarrago gaudelako, baizik eta badirudielako beste guztiak lagunduta eta planez inguratuta daudela, gu izan ezik.

Horrelako egoeren aurrean, lagun-garria izan daiteke gure osasun mentala zaintzeko keinu txiki batzuk egitea. Adibidez, sare sozialetan ematen dugun denbora mugatzea, batez ere geure burua besteekin alderatzen ari garela

ohartzen bagara. Era berean, komeni da gure buruari galdetzea zer behar dugun benetan: agian bidaiatu beharrean atsedeen hartu, edo jende askorekin egon beharrean konfiantzazko pertsona batekin denbora partekatu.

Garrantzitsua da gogoratzea atsedena bera ere jarduera baliotsua dela. Ez dugu etengabe zerbait egiten aritu behar, ezta egun guztiak plan berezietan bete ere. Udan ere badago tokia asperdurarentzat, lasaitasunarentzat eta erritmo motelago baterako.

Eta, batez ere, emozio guztiak onartzen ikasi behar dugu. Pertsona guztiek ez dute gauza bera behar ondo sentitzeko. Batzuek bidaiatuz gozatuko dute; beste batzuek, etxean atseden hartuz. Batzuek konpainia bilatuko dute; beste batzuek lasaitasuna eskertuko dute. Osasun mentala hobetu egiten da perfektuizko itxaropenak alde batera utzi, eta benetan behar dugunarekin konektatzen hasten garenean.

Izan ere, agian helburua ez da uda perfektua izatea, baizik eta nahikoa ona den uda bat bizitzea. ●

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

libreriapapeleria zamudio@hotmail.com
Gorbea kalea, 4 · ZAMUDIO · 944 522 910

SORLEKUA




Ikusi hemen
laburmetraia



Unos muertos muy vivos

“**E**gun gogor baten ondoren, zonbi ehiztari batek deskuidu txiki bat izan du: etxeko atea irekita utzi, eta bisitari oso bereziak ditu gauean”. Jorge Barrena Marin zamudioztarrak zuzendu du zombien istorio labur hau. Gorea eta

umorea uztartuz, 80ko hamarkadako zonbi filmeetara garamatza, musika elektroniko eta beldurrezko makillajez lagunduta. Barrenak bere gertukoak jarri ditu aktore lanetan, tentsioa eta umorea nahasten dituen beldurrezko laburmetrai dibertigarri honetan.



Jorge Barrena Marin
@ jorgebarrenamarin



Zure sormen-lana gurekin partekatu nahi baduzu, idatzi aikor@aikor.eus helbide elektronikora.

PATRICIA BARRON SAN BLAS
EHUko irakaslea eta ikertzailea
gizarte zientzietan



ARRAKALA DIGITALA

Ezeztapenaren kultura: epaiketarik gabeko kondenak

Azken urteotan sare sozialek informatzeko eta iritziak partekatzeko modua erabat aldatu dute. Albisteak eta iritziak berehala zabaltzen dira, eta, horren ondorioz, pertsona baten ospea egun bakarrean eraiki nahiz suntsitu daiteke. Ez naiz nire esperientziaz ari; aitzitik, sare sozialetako hainbat profil aztertuta, gero eta argiago ikusten dut ezeztapenaren kultura hedatzen ari dela. Kezkagarriena, nire ustez, pertsona baten heriotza digitala eragin dezakeela da.

Izan ere, askotan gertakari baten inguruko informazio guztia ezagutu aurretik ematen da epaia. Erabiltzaile askok berehala hartzen dute jarrera, eta azalpenak edo testuingurua bigarren mailan geratzen dira. Ondorioz, kritikaren eta jazarpen kolektiboaren arteko muga gero eta lausoagoa da.

Hor dago, hain zuzen ere, arazo nagusia. Mundu fisikoa, delitu baten aurrean, errugabetasun-presuntzioa erres-

petatzen da, frogak aztertzen dira eta epaile batek hartzen du azken erabakia. Sare sozialetan, aldiz, badirudi edonor bihur daitekeela epaile, fiskal eta epaimahai aldi berean. Horrenbestez, epaia ez da frogetan oinarritzen, baizik eta mezu baten biralatasunean edo unean uneko iritzi nagusian.

Are gehiago, zigorra ez da unean bertan amaitzen. Argitalpen zahar batek edo testuingurutik ateratako esaldi batek pertsona baten irudia urte luzez baldintza dezake. Lan aukerak galtzea, harreman pertsonalak hondatzea edo osasun mentalean ondorio larriak pairatzea ez dira salbuespenak. Azken batean, heriotza fisikoa ez bada ere, heriotza digital moduko bat gertatzen da.

Alabaina, ez litzateke zuzena izango sare sozialen alde iluna soilik azpimarratzea. Izan ere, plataforma horiei esker bidegabekeria ugari agerian geratu dira, eta bestela entzunak izango ez liratekeen

ahots askok oihartzuna lortu dute. Hor-taz, arazoa ez da kritikaren existentzia bera, ezta herritarrek iritzia ematea ere. Aitzitik, arazoa kritikaren eta jazarpen kolektiboaren arteko muga gero eta lausoago bihurtzea da. Ez baita gauza bera norbaiten jokabidea zalantzan jartzea edo milaka pertsona haren aurka mobilizatzea, haren bizitza pertsonala zein profesionaletarako suntsitzetarako.

Finean, justizia ez da ozenen egiten duenaren alde egitea, ezta sarean gehien partekatzen den iritzia egia bihurtzea ere. Justiziak denbora, frogak, proportzionaltasuna eta entzutea eskatzen ditu. Sare sozialek, berriz, maiz kontrako norabidean arraun egiten dute. Hori dela eta, ezeztapenaren kultura normalizat hartzen badugu, arriskua ez da soilik pertsona jakin batzuek heriotza digitala pairatzea; arriskua da gizarte osoa ohitzea epaiketarik gabeko kondenak normalizat jotzera. ●

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txanilagorri 62
ZAMUDIO
iz.ile.apaindegia@gmail.com

PATXI
OSTALARITZARAKO ZERBITZU INTEGRALA
40 URTE ZUGANDIK GERTU
www.patxikoop.eus
f t i n
Neimber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 581 / info@patxikoop.eus

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com



1 Burgetako irudi preromanikoa



2 Panguako hilerria eta hagina



3 Panguako eliza

**IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA**

MENDITIK PATXADAZ San Formerio

Oraingoan Formerio izendun santuaren santutegia hartuko dugu aitzakitatzat ibilbide polit bat egiteko Trebiñuko lurretatik. Elementu erromaniko zein gotiko interesgarriak ikusiko ditugu, baita erromaniko aurrekoak. Herritxo interesgarriak gurutzatu eta paisaia ederrez gozatuko dugu. Dena hamar kilometro inguruko ibilbide zirkularrean.

Trebiñuko lurretara joan gara, eta autoa Estabilloko San Martin elizaren ondoan utzi dugu. Sarrera gotikoa ikusi ostean, herriko behealderantz eta eskuinera eginez, Arabako Santiago bidea jarraituz, garbitoki ederra aurkitu dugu. Estrata batetik gora egin, eta laster, asfaltoko bide estu batera irten gara. Berau jarraituz, txaletez betetako Burgeta herrira heldu gara. Garbitoki eta iturri dotore baten ostean, eliza dago, hau ere San Martini eskainia. XIII. mendeko fatxadan giza aurpegiak sumatzen dira. Kaletik hegoalderantz eginda, bigarren txaletaren lorategiaren horman dagoen irudiak merezi du begirada bat: erromaniko aurreko irudi bat dago harrian zizelkatuta, gotzain bat bere aulkian ei da.

Panguara eramango gaituen bidexka hartu dugu. Arte-baso bat gurutzatu eta hilerri txikira heldu gara. Horma altuak ditu eta barruan hagina bat dago landatuta, eternitatearen sinboloa ei zena. Gerran fusilatutako gorpu bat atera be-

rrri dute bertan. Pangua herrira sartu, eta etxe baten hormari adi luzaro egon gara, museo etnografiko polit bat dago bertan eskegita eta. Elizak, San Kornelio eta San Zipriano, ondo merezi du bisita ere. Itzela da, eta kanpandorre oso-oso altua du. Hain altua, zeren zaila egiten den goiko gargolak bereiztea, baina han daude, dotore. Eguzki-erlojua, XIII. mendeko portada eta kanpandorrera doan pasabidea ere ikustekoak dira.

Etorri garen bidetik atzera eginez San Formeriora bidaltzen duen seinalea dago. Asfaltoko bide estu bat da, baso erditik doana, zuzenbide luzeak dituena, eta benetan luze egiten direnak, zeren igoera gogorra da. Gora helduta, eta arnasa hartu ostean, harkaitzean zulatutako bi hilobi antropomorfo aurrez aurre aurkitu ditugu, eta goian, San Formerio ermita-eliza handi eta sendoa. Gerra ezberdinetan gotorlekua izandakoa da, bertatik inguru handia kontrola daiteke eta. Barruan hezurak gordetzen dira eta burua urna eta

mausoleo eder batean dago. Kondairak dio errelikia Asiatik bertaraino ekarri zutela, eta buruko minak kentzeaz gain, aziendak eta uztak babesten dituela. Ermita bat baino gehiago da, duda barik.

Ibilaldiaren zirkulua ixteko, mahai batzuk dauden landatik behera eginda, bidezidor ederra aurkitu dugu, GR1 dena. Laster ezkerretara doan beste bidetxo batetik eginez mendilerro hertzetik joan daiteke bistaz gozatuz. Guk oster, aurrera egin dugu GR1etik, gerizpeaz gozatuz, zuhaitz artean doan bidezidor polita bai da. Estabillora arazo barik heldu gara.

Behin Trebiñun egonda bi proposamen gehiago: Lehena 14 kilometrora dagoen Kutxo herri politaren hilerria bisitatzea, zeren gari-solo artean dagoen hilerri dotorean lau leiho prerromaniko daude txertatuta, ikustekoak. Bidaia ondo amaitzeko Askartza herrira hurbildu, eliza dotorea ikusi eta bertako sagar-dotegian giro euskaldunean bazkaltzea besterik ez da falta. ●



4 Panguako horma museoa



5 San Formerio santutegia



6 Kutxoko hilerriko leihoak

Ibilbidea

Distantzia: 9,5 km

Desnibel positiboa: 312 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419





SUKALDARITZA

Bakailaoa tipulin pil-pilarekin eta piperradarekin, cous cous gainean



OSAGAIK (lau pertsonarentzat):

Bakailaorako osagaiak

- 1 kg bakailao solomo
- 0.75 l oliba olio
- Berakatz buru bat
- Pipermin lehor bat

Cous couserako osagaiak

- 200 g cous cous (bulgurra ere erabili daiteke)
- Laranja baten eta bi mandarinaren zukua
- Tomate heldu 1 kubo txikietan, hazia xehe-xehe xehatua
- 1/2 tipulina edo tipula more txikitua Eskukada bat perrexil fresko eta belar-belar xehatu
- Oliba-olio birjina estra eta gatza

Piperradarako

- 4 piper berde
- 2 piper gorri edo piper mutur
- 3 tipula ertain
- 3-4 tomate heldu handi (edo tomate birrindu bat)
- 2 berakatz hagin
- Oliba-olio birjina extra
- Gatza eta piperbeltz pittin bat

Gaizka Eguskizaren errezeta

Bakailaoa egiteko:

Berakatzak eta pipermina olioarekin su leunean konfitatzen jarri. Kolorea hartu ondoren, kendu eta gorde. Oliba epel dagoenean, erantsi bakailaoa azala gorantz duela, eta utzi poliki egiten. Bakailaoa ia prest dagoenean, utzi epeltzen, eta bakailaoa oliotik bereizi.

Pil-pilarentzat:

Bakailaoa askatu duen ura emultsionatu beharra dago. Horretarako, erabili berakatz eta piperminaren olio epela eta nahastu eta irabiatu hagaxka edo iragazki batekin, pilpila lortu arte. Aurreko guztia erreserbatu.

Cous couserako:

Hidratatu kuskusa: jarri kuskusa bol zabal batean. Ur irakina erabili beharrean,

laranja eta mandarinaren zukua bota. Utzi bertan 10 bat minutuz, eta mugitu noizean behin, likido guztia xurgatu eta bigun egon arte.

Txikitu barazkiak: kuskusa hidratatzen den bitartean, moztu tomatea, pepinoa eta tipulina dado oso txikietan (brunoise). Belar usaintsuak ere moztu txiki-txiki eta cous couseko bolera gehitu.

Ondu: Oliba olio zurrusta on bat, gus-tuko gatza eta laranja-arrasparen ukitu gehigarri bat gehitu aroma indartzeko. Nahastu dena emeki.

Pausatu: Utzi hozkailuan hozten gutxienez 30 minutuz, zapoak integratzeko eta tabulea ondo freskatzeko zerbitzatzean.

Piperradarako:

Barazkiak prestatu: moztu tipula juliana

mehean. Moztu piperrak tiratan. Moztu berakatz fin-fin. Zuritu eta zatitu tomateak.

Erregosi: Berotu oliba olio zorrotada eder bat zartagin zabal batean, su ertainean. Gehitu berakatz eta tipula, eta utzi erregosten 10 bat minutuz. Gehitu piper berde eta gorria gatz pitin batekin batera. Utzi su ertain-baxuan egiten 20 bat minutuz. Tomatea gehitu, sua minimora jaitsi eta beste 20 minutuz nahastu. Jarri gatz puntua.

Platereratzea:

Jarri cousa plateraren erdian, jarri bakailaoa gainean. Nahastu pil-pila tipulin edo perrexil xehatu pixka batekin eta egin malko bat bakailaoaren ondoan. Amaitzeko, jarri piperrada bakailaoaren gainean.

DENBORA-PASAĖ

ZAZPI EZBERDINTASUNAK

Topatu zazpi ezberdintasun Zamudioko argazki honetan. Zer falta da? Zer dago sobera? Zer dago aldatuta?



ATZERA BEGIRA

Egilea ezagutzen ez badugu ere, 1960 urte ingurukoa dugu Derioko argazki hau. Ezkerrean dagoen osasun etxea eraiki berria zen, baina oraindik etxe-orratzaren obrak hasi gabe zeudela dirudi. 80ko hamarkadan eraiki ziren musika kioskoa eta komun publikoak. 90eko hamarkadaren amaieran desagertu zen osasun etxea (azken urteetan Udal Euskaltegia izandakoa) eta frontoia, Udaletxearen hantzearen ondorioz.

1960 ?



EGILE EZEZAGUNA

2026



“Ta berriz izango gara zoriontsu gure herriko Berbalagunen”



Izena ematea: **urte osoan zehar**

Izena emateko: **berbalagun.txorierri@gmail.com edo 747 447 579**

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



30 URTE

MUSIKA-TRESNAK ETA KULTURA LANTZEN



MATRIKULAZIO EGUNA

IRAILAK 9, 19:30

ZAMUDIOKO KULTUR ETXEAN

689246844

BERTOKOZAMUDIO@GMAIL.COM

@BERTOKO_ZAMUDIO

